

Gazte iraultza

04. Formakuntzako laugarren blokea



ernaigazte.cc

2017ko uda

“Zirkuluaren antzekoa da borroka, edozein puntutan has daiteke... baina ez da inoiz amaitzen.”

Subcomandante Marcos



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/2.5/deed.eu>

AURKIBIDEA:

1.) GAZTE IRAULTZA

0. SARRERA

Borroka iraultzaileetan gazteriaren garrantzia / Zaharra eta berria.
Nagusia eta gaztea / Heldu Boterea / Heldu Boterea militantzian? /
Garrantziaren kontzientzia hartzea

1. GAZTE ESPERIENTZIAREN GARRANTZIA, EUSKAL HERRIAN

Gazteria subjektu bereizi gisa / Gazte iraultza

3. GAZTE BORROKA INDEPENDENTISTA, SOZIALISTA ETA FEMINISTAREN OINARRIAK

Gazte antolakuntza / Zutabe estrategikoak / Gazte kontzientzia sortu /
Zeharkako lehentasuna: gazteon bizi baldintzen hobekuntza / Borroka
da bidea: kontraesanak azkartu eta hauek gainditzeko azalera /
Suntsitu eta eraiki: txanpon beraren bi aldeak / Etika iraultzailea eta
Herri, zapaldu eta Amalurraren parte izatearen kontzientzia sortu /
Perspektiba politikoa, analisi eta formakuntza perspektiba sortu /

2) HISTORIAREN ERREPASOA

1. ITSASGORA ETA ITSASBEHEREN ZIKLOAK

Gazte borrokaren Mareak Euskal Herrian (1979-2017) / 80.hamarkada
1.fasea (1979-92) / 90 hamarkada: 2.fasea (1992-02) / oo hamarkada:
3.fasea (2002-12) / 2010 Hamarkadatik aurrera 4. fasea: (13- ?) /
Ondorio txiki batzuk ateratze aldera

3) AURRERA BEGIRA

Nazio eraikuntza herri boterea da / Herri botererantz / Egoera politiko
berria / Egoera sozioekonomiko berria / Nazio eraikuntzaren izaera.
Gazte ekarpena / Lan ardatzak / Eraikuntza mikropolitikoa / Estatugintza
/ Bizitzak, subjektibitateak eta botere harremanak / Antolakundearen
apustuak

4) GAZTE MILITANTZIAREN OINARRIAK

Txinaurri lana / Zaintza hirukoitza

1.

GÄZTE IRAULTZA



0. **SARRERA**

BORROKA IRAULTZAILETAN GAZTERIAREN GARRANTZIA

Ondorengo baieztapena, guztionatik ezaguna izan arren, konstatazio historiko bat da eta derrigorrez aipatu beharrekoa: prozesu iraultzaile guztietan eta zapalkuntzaren kontrako errebolta eta altxamendu guztietan, gazteriak ezinbesteko papera bete du. **Gazteria historiako prozesu iraultzaile gehienen motor eta indar nagusia izan da.**

Gazteria, bizitzako indar berria izatean, egoera zalantzan jartzea lagungarriagoa den eskema mental eta bizi-gogo baten jabe da. Ezaugarri honi esker, belaunaldiz belaunaldi gazteria borrokaren lehen lerroan egon da. Horrela, klase borroka bada historiaren motor, gazteria izan da "motorraren motor. Gazteria izan da indar eragilea belaunaldiz belaunaldi, zapalduon borrokan aurrerapenak emateko ezinbesteko papera bete duena.

Historian baieztapen hau konfirmatzeko adibide ugari ditugu. Asko dira esperientziak eta egoera historikoak zeinetan generazio nagusiagoek metaturik esperientzia gazteriak freskotasunez bultzatu dituen. Zahar eta gaztearen dialektika honetan, gazteria ez da aurrekoarekin harremanik ez duen eta egoera berri bat dakarren indar berri bat; **bizi indar berri bezala agertzen da, baina aurreko belaunaldiarekin interrelazio osoan, aurreko esperientziak bizi, asumitu, esperimentatu, pairatu eta garatu ostean, borrokan egoera berriak sortzen dituena da.**

ZAHARRA ETA BERRIA. NAGUSIA ETA GAZTEA

Naturako edozein prozesu bezala, berriak zaharra ordezkutzen du, berria zaharra bilakatzen den arte eta hau berriro berriarengatik ordezkaturia izango den arte. Prozesu konstante bat da naturaren garapenean, eta beraz, gizakiaren historian.

Berria eta zaharraren arteko harreman dialektiko hau modu transbertsal eta unibertsal batean ematen da, interakzio totalean. **Baina harreman honek garrantzia handiagoa hartzen du askapen kolektiboa bilatzen duten prozesuetan.** Azken instantzian, borroka eta borroka honen helburuen lortzeak, gazteriaren jarraipen, garapen, sakontze eta aurrerapen kuantitatibo eta kualitatiboan menpe egongo da eta.

Askotan oharkabean pasatzen da gazteriaren papera prozesu iraultzaileetan. Eta beste askotan, kontuan hartzen bada ere, ez zaio behar beste garrantzirik ematen. Esperientzia askotan "gazteriaren paper garrantzitsu hau" iraultza edo askapen prozesuetan, modu naturalean gauzatu da, "bere logika naturalaren barruan garatzen" utzi da. Beste kasu askotan ez dira planteamendu espezifiko eta egokiak egin gazteriaren papera hobetu eta potentziatzeko. Horrek erakusten du egoera gehienetan ez dela garrantziaz kontziente izan.

Jende askok pentsa lezake baieztapen hauek ez direla zuzenak. Esperientzia iraultzaileen barruan eta borroka ezberdinen barruan gazteriarenganako planteamen-
duak egin direla. Ez diogu egin ez direnik. **Gure aburuz, gehienetan ez da kon-**

tziente izan bere indar berritzaileaz, subjektu bezala egin dezakeen ekarpenaz.

Ideiak indar geldiezin bihurtzen dira kolektiboan kontzienteak egiten direnean. Hor dago iraultzaileen funtzio garrantzitsuenetako bat. Inkontzientea dena kontziente egitea. Premisa hau geure eguneroko praktika pertsonal eta kolektiboan erdigunean kokatu behar dugu. Eta lehen adibide gisa har dezakegu gazteriaren funtzio iraultzailetan.

Esperientzia askok erakusten dute gazteriarekiko egin diren planteamenduak, sinpleki gazteak formatzeko planteamenduak izan direla; borrokan erreleborako, baina aurretik zehaztutako patroien arabera. Eta beste kasu askotan erakusten du planteamendu faltan aurrean eta belaunaldi helduagoen ulermen faltarengatik, belaunaldi arteko gaizki-ulertuak sortu izan direla, baita mugimenduen barruko zatiketarak ere, ikuspegi eta ekintza berriak ekarriko zituztenak (gure herriaren historiak hau baieztatzen garamatza mendeko lehen hamarkadak begiratuta, PNVren zatiketarik sortu zelarik Ekin eta ondoren ETA, adibidez).

HELDU BOTEREA

Gazteriaren paperaren garrantzia eta planteamendu espezifiko faltaren “kontzientzia inkontziente” hau, gizartean eman da orokorrean eta baita ere mugimendu iraultzaileetan. Hau, besteak beste gizarte osoan Heldu Botereak eragiten duelako da. **Mugimendu iraultzaileetan Heldu Botereak ere badu eragina, patriarkatuak eta sexismoak bezala, mugimendu iraultzaileetan garatzen dena.**

Baina zer da Heldu Boterera? Heldu Boterea pertsona nagusiek gazteagoekiko duten harremanean bereganatu eta garatzen duten boterea da, forma zuzen eta ez zuzenak, forma kontziente zein inkontzientean, helduen gailentze bat ematen da gazteekiko eta zeinagatik onura zehatzak lortzen dituen (kontziente edo inkontzienteak). Botere harreman hau helduek egiten dituzten rolen, arauen, ohi-turen, pentsamendu moduen, espresio moduen, mugapenen, eta abarren inposizioetan oinarritzen da. Botere harreman honek gizarte kapitalista-patriarkarraren babesa du, eta bere oinarritzko nukleoa egitura familiarretan du, gurasoak izanik normalean botere harreman hauek bermatzen eta zurkaitzen lehenak. Iñaki Gil de San Vicentek honela azaltzen digu:

“Zer da Heldu Boterea? Pertsona nagusiek haur eta gazteen aurrean darabilten boterea da. Nagusiagoak izateagatik ustez duten esperientzia, bizipen, jakinduria... handiagoan oinarritzen dena. (...)

Ohitura sozialen, ideologia dominatzailearen, sistema patriarkarraren, eguneroko bizitzaren, maitasun edo afektibitate gisa definitzen den horren... eta abarren ia osotasuna, hau da, **kontzienteki zein inkontzienteki, egunero eta uneoro erabiltzen ditugun portaeren eta pentsamendu ofizialen multzoek, heldu botere baten existentzia ezkutatzeko asmoarekin jokatzen dute.** Onura multzo bat lortzen dute gazteria eta haurrengandik eta ezkutatzeko honetaz gain, ilusio faltsu bat sortzen dute Heldu Boterea desinteresatua, altruista eta zaindaria dela haurtzaro eta gaz-

teriaren eskubideekin. Baina ez da horrela.

Gutako askok (eta beraz askoz gehiago gure helduen artean) esango dute Heldu Boterearen kontu hau exagerazio eta paranoia bat dela. Hau bi arrazoi nagusirekin azaltzen dugu. Lehena da, bestelako esplotazio formak bezala, bere mekanismoak eta barne-logikak ikusteko zailak direla, **sistemak "ikusezin" egiten dituelako.** Eta bigarrena, zapal dutako pertsona oro (aldi berean zapaltzaile eta zapaldu dena ere: bere alaba zapaltzen duen langilea, bere bikotekidea zapaltzen duen ezkerreko militantea, nazio zapaltzaileko langile herriak nazio zapalduko langile herriarekiko...) **hezia izan da ez soilik bere zapaltzailea ez ikusteko, baita ere hau pentsatzea ekiditeko, ez sinesteko eta are gehiago, batzuetan, justifikatu eta defendatzeko ere.** Baina gainera... Zergatik da ikusteko horren zaila?

Heldu Boterea zer den ulertzeko dugun zailtasun handienetakoa, arrazoi psikologiko, afektibo, emozional eta pertsonal argiengatik da, **denok baitugu joera arazo hau gure gurasoen oroitzenaren arabera pentsatzeko.** Normala da horrela izatea, automatikoki eta nahi izan gabe, soilik norbere familian pentsatzen dugu errealitate handiago eta objektiboago baten ordez, pertsona helduez osaturiko bloke sozial bat bere seme-alabekiko jokatzeko modu ia berdintsua duena. Gure izaera horretan barneraturik ditugun faktore psikologiko hauengatik, ez gara gai izaten subjektibitate indibidualista partzial eta berehalakoa gainditzeko eta ikuspegi altu eta osoago batera heltzeko, bertatik heldu boterea errealitate objektibo baten gisara ikusteko, gure sentimendu pertsonal eta familiarrengandik at. **Sentimenduetatik ulermen teorikora jauzi egiteko ezintasun honek, heldu boterearen existentzia ikusezin bilakatzen du.** Eta ez dago botere efektiboagorik, existitzen ez dena dirudiena baino, hau da, modu ikusezinean ekiten duena, oharkabean pasatuz.

Labur esateko, **heldu botereak lortzen dituen onurak bi bloke handietan banatu ditzakegu: bat, gizarte kapitalistako maila orokorrean, gehiengo akumulazioa ziurtatzeko beharrezko lan-indar soziala sortu eta erreproduzitzen du,** horrek dakarren guztiarekin. Bestetik, **norbanakoen maila partikularrean** -gurasoak eta instituzio familiar patriarkar-kapitalista-, aurretik aipaturiko gehiengo **akumulazioa errazteko kapitalismoak norbanakoei inposatzen dien alienazioa beraien bizitzetan erreproduzitu duten gizakiak sortzen ditu.**

Noski, bi blokeen artean dialektika zorrotz bat dago eta era berean bere garapena beti testuinguru nazional eta esplotazio patriarkarren harremanen barruan ematen da. Testuinguru eta harremanak, manipulazio eta alienazio bitartekoetan duten eraginagatik -ofizialki "prentsa" bezala ezagutuak- aurrerago aztertuko ditugu, Euskal Herrian duten eragin zuzenean erreparatuz. Errealitate totalizatzailearen bi osagai hauen arteko dialektikan, sentimenduek, afektuek eta pertsona zehatzen desirak parte hartzen dute, modu honetan egunerokotasunean manifestazio forma anitzak daudelarik. Dibertsitate hau ordea, lotua dago botere kapitalistari alienazio globala dominatzen duen heinean. **Alienazio hau da gurasoen gehiengoak bere seme-alabekin kapitalismoak agintzen duen moduan jardutera eramaten duena. Heziketa ona hori besterik ez da, eta "seme-alaba ona" izatea berdin.**

Okerrago oraindik, botere helduak pertsona nagusiak haur babesgabeak izango balira bezala jokatzeari dakar, gidatuko dituzten lider babesle eta paternal baten beharra dutenak, autoritarioa edo basatia kasuaren arabera, beraiengatik arazo inportanteak pentsatu eta erabakitzen dituenak; “desagertutako aitaren irudi” tragikoki famatua dena, distantzia material eta kronologikoez gain, izaeraren inkontziente eta subkontzientearen barrenean dagoena. Modu honetan, izan opio erlijiosoagatik edo beste edozein alienazio formagatik, “desagertutako aitaren irudia” ukazina eta psikikoki beharrezkoa den liderraren sinbolo eta materializazioa da. Barneratu eta onartutako boterearena “tradizio eta betiko balioen” bidez lotzen ditu akats, beldur, angustia, antsietate, fobia eta era orotako dependentzien kauteekin, giza pertsonalitatearen hezkuntzaren arabera sartuak izan direnak. **Horrela ulertzen da nola praktika kolektiboan maiz helduak haur babesgabe bezala jokatzen duten, objektiboki euren eskubide eta askatasunak suntsitzen dituzten, botere diktatorial eta atzerakoiak babesten dituzten.** Ikuspegi kritiko honen bidez, kapitalismoaren diktadura eta demokraziaren desberdintasuna da diktaduran “desagertutako aita” sinboloa den liderra boterean denbora luzez mantentzen dela, eta demokrazian lider hori beste lider batzuegatik ordezkaturia da, baina autoritate eta botere irudi horiek burgesiaren klase diktaduraren arazo fundamentaletan ahuldu eta kuestionatu gabe.”

Gehitzeko esan genezake heldu boterearen ondorio argiena, agenda politikoa beraien interesen arabera antolatuta dagoela, gainontzeko subjektuak bigarren mailan geratuz. **“Helduzentrismoa” da jendarte honen ideologiaren ardatzeta-ko bat.** Gazteon kontra ematen da modu argiengan, disziplinaren bitartez, baina helduzentrismoak gainontzeko adin-subjektuak ere baztertu eta bigarren mailako egiten ditu: zaharrak, gazteak eta haurrak ez daude gizarte antolaketa ereduaren erdigunean inoiz. Praktika kontratuak lapurreta izugarria diren bezala, pentsioen jaitsiera eta izozteak irain bat baino ez dira, biak ala biak helduzentrismoak harturiko erabakiak.

HELDU BOTEREA MILITANTZIAN?

Tamalez, patriarkatu eta sexismotik askatzen ez garen bezala, **militantzia eremuan ez gara heldu botere zein helduzentrismotik askatzen.** Itxuran saiakera bat egiten da diskurtsoetan integratuak egoteko. Gazteon eta emakumeon lan-baldintzak bereziki salatzen dira, baina diskurtsoaren amaieran, gehigarri bezala, ez egiturazko arazo bezala. Prentsaurreko guztietan ere gazte eta emakumeen presentzia eskatzen da, baina argazkirako edo irakurtzeko, ez idazteko.

Diskurtsoetan ez ezik, **heldu botereak militantzia eremuetan zein pribilegio ematen dituen aztertu beharra dago.** Esperientziaren izenean, jakintza aurreuposatzen da, eta hori **aitzakia** bezala erabiltzen da eztabaida ekiditeko eta “helduagoek” esaten dutena egiteko. “Zuek ez dakizue”, “guk hori egin genuen gure garaian eta ez zuen balio izan”... eta gisako argumentuekin **eztabaida ukatu** egiten da eta botere harreman horregatik bakarrik hartzen dira erabakiak, **heldu pribilegioak hareagotzeaz gain, gazteon ahalduntzea ekidinez.**

Ez dugu hemen esperientziaren bertutea ezabatu nahi, ez eta militante zaharra-goengatik ikasteko dugun guztia. Esperientzia benetako arma bat da, eta askotan jakintza iturri garrantzitsuena ere izan daiteke. Ordea, hori eztabaida balio-gabetzeko erabiltzen bada uste dugu beste mota bateko pribilegio batzuk ematen direla, eta hori kaltegarria dela.

Askotan **gazteok dugun freskura, borrokarako gogoia eta kritikotasuna zapuztu egiten dute helduek**, euren beldur eta nekeengatik, aipaturiko pribilegioen bidez eztabaidetan euren iritzia inposatuz. Eztabaida sakonagoak ematearen beharra nabarmenduko genuke hemen akatsak errepika ez daitezela. Noski, **ezin gara sinplistik izan eta pentsatu heldu batekin ados ez gauden bakoitzean bere pribilegioengatik dela**, askotan, eta zorionez gu ere, gure freskura eta kritikotasun guztiarekin, akatsetan erortzen gara eta postura okerrak izaten ditugu. Argudioak eta pribilegioak aztertzeaz ari gara, ez inoren lana gutxietsi edo goretsi nahian.

Gazte bezala antolatzearen beharra izan daiteke eztabaidatu dezakegun adibideetako bat. **Naturalizatuta dago espazio batzuetan gazte borroka piztea, baina helduek horretarako eskaintzarik badute sarri gaizki ikusten da**, borroka "orokorrean" egon behar baitute. Mugimendu sindikalean, mugimendu feministan, internazionalistan, jaien eremuan... hamaika dira adibideak non heldu botereak gazteen autoantolakuntza zalantzan jarri izan duen.

Espazioak konpartitzen ditugun helduez gain **gazteon artean ere ematen dira** argudiorik gabeko eztabaida hauek, soilik "esperientziaren boterean" oinarrituz. Militatzen hasi berri den eta urteak daraman militantearen arteko harreman desorekatu horretan maiz ez dira jakintzak ondo kudeatzen eta botere harremanak erreproduzitu egiten dira, pribilegioetan sakonduz.

GARRANTZIAREN KONTZIENTZIA HARTZEN

Sistema kapitalistaren helburu kontzientea ("edo inkontzientea") zapalduak beren zapalkuntzarekin eroso sentiaraztea da, ez konturatzea eta are gehiago zapaltzailak defendatzera iristea; patriarkatuak emakumeok geure zapalkuntzaz ohartu ez eta eroso sentitu gaitezen nahi duen bezala; **Heldu Botereak gazteok gure egoeraren kontzientzia ez hartzea bilatzen du.**

Beraz, **antolaturiko gazteria militantearen aldetik eman behar dugun lehen urratsetako bat, gazteriak askapen prozesuetan duen paperaz kontzientzia hartzea izan behar da.** Garrantzia hori ez dio gazteriarik kanpoko inork edo ezerk emango, gazteriak berak aitortu behar dio bere buruari. Gazteri militante antolatua horretaz kontziente izatea da eman beharreko lehen urratsa. Ondoren gazteria guztiari erakutsi beharko zaio, eta batez ere, praktikan, jende nagusi militanteari, zeina ere kontziente egin behar dugun. Baina edozein zapalkuntza egoeretan, funtsezkoena da zuzenean jazarritakoak izatea arazoaren kontzientzia hartzen dugunok, borroka feministan bezala, gizonetzkoek kontzientzia hartzea ezinbestekoa da, baina oinarritzekoena eta determinantea emakumeon papera izango da.

Kontzientzia hartzea ez da nahikoa, eta gazte boterearen sorrera izan behar da edozein gazte antolaturen iparrorratza. Hau aurrerago sakontzen saiatuko gara.

1.

**GÄZTE
ESPERIENTZIAREN
GARRANTZIA
EUSKAL HERRIAN**

Zentzu honetan, Euskal Herrian pausu garrantzitsuak eman ditugu. Gazte borroka indar berezia eta aparteko dimentsioa hartu du. **Guretzat horrela izatea normala iruditu ahal zaigun arren, hala bizi izan eta ezagutu dugulako, Euskal Herriko gazteriak duen antolakuntza ohitura maila ez dugu ia munduko beste inon topatuko.** Harroak izateko asmorik gabe, ez dugu uste ahoberoak izaten ari garenik.

Geure iritzi apalean, Euskal Herriko ezkertiar independentista eta sozialistok askotan gehiegi begiratu izan diogu geure zilborrari. Historia desitxuratzen duen ikuspegia saihesten jakin behar dugu, alegia, mundua europar perspektiba batetik ikustea soilik. Perspektiba honek prozesu eta gertakari historiko asko behar duten objektibotasunez ez ikustea dakar. Honi, perspektiba eurozentrikoa deitzen zaio, ikuspegi europarazalea gehiegizkoa baita. Eta era berean, **“euskozentrismoa” saihestu beharrean gaude, errealitatea eta inguruko historia desitxuratzen baitu geurea propioa gehiegi goratuz eta gainontzekoa gutxietsiz.**

Gauzak horrela, eta **“euskozentrismoa” alde batera utzirik, ez da gehiegi esatea Euskal Herriko gazteriarren antolakuntza mailak badituela aitzindari izan diren zenbait alde.** Logikoki, antolatzeko edozein era lekuaren nolakotasunei lotua egongo da, bertako errealitatearen arabera eraikitzen baita. Munduko leku bakoitzeko alde erlatibo eta espezifikoenak alde batera utzita, esan beharra dago **Euskal Herrian antolakuntza esperientzia eta Gazte Iraultza perspektiba erabat berritzaile bat garatu dela. Alor batzuetan kualitatiboki, munduko txoko batzuekin alderatuz, aurreratuagoa dena.** Halere, baditugu zuzendu beharreko hainbat kontu, etengabe landu eta eztabaidatu beharrekoak.

GAZTERIA SUBJKTU BEREZI GISA

Munduko beste mugimendu iraultzaileekin konparatzerakoan erabiltzen dugun elementuetako bat da, **gazteriak ia 40 urte daramala bere burua subjktu gisa antolatzen.** Hau, gerora azalduko dugun bezala, guztiz erabakigarria izan da Euskal Nazio Askapen Mugimenduaren bilakaeran. XX.mendeko ezkerreko mugimendu iraultzaile askotan (ondo edo txarto) antolatzeko eredu leninista aplikatu zen, zeinetan alderdia langile klasea antolatzen den “aitzindaritzaren” bizkarrezurra den. Eskema hau piramide baten gisan imajinatu dezakegu, alderdiaren buru-politikoak mugimendu osoaren zuzendaritza papera betetzen du eta piramidearen gainontzeko mailetan alderdiaren bestelako sailak egituratzen dira: sindikatua, emakumeak, gazteak...

Euskal Herriko ezker independentista eta sozialistaren garaipen handienetako bat, bigarren mundu gerraz geroztik ezkerreko mugimenduei gertatu ez zitzaizen bezala, SESBen antolatzeko ildoetan hain erraz ez jaustea izan zen. Euskal Herriko ezker independentista eta sozialistak, 60 eta 70eko hamarkadetan, iraultza eta askapen nazionalako prozesuak ere garatzen ari ziren munduko beste txoko batzuetara begiratzen jakin izan zuen (Kuba eta Argelia kasu) eta hala, **antolatzeko eredu propioak asmatzen jakin izan zuen.** Horrela, Euskal Herrian ez da joera leninistako Alderdiaren figura existitzen eta beraz, helburu estrategiko komun batzuen baitan era independente batean lanean ari diren erakunde politiko eta herritarren

multzoa osatzen du mugimenduak. Irudiarri dagokionean, esfera hirukoitz gisa ikusi genezake, eragileak euren arteko elkarrekintza kolektiboan mugitzen direlarik.

Hala, 70 eta 80. hamarkadetan herri mugimenduko eta eragile politiko ezberdinen alde egin zen Independentziaren eta Sozialismoaren aldeko borroka garatzeko. Hasiera batean koordinatuta egin zuten lan nahiz eta gerora koordinazio hori utzi zuten bakoitzak bere klabe propioetan garatu ahal izateko eta iraultzaren dinamizazioa bakoitzak bere esparruan egiteko.

Jarrai antolakunde independentista eta iraultzailea, 1979an antolakunde independente gisa jaio zen, eta Ezker Abertzalearen parte izan arren, berezko funtzionamendu batekin, erabakitze esparru guztiz independente bat izan da, dinamika propio batekin.

Ikusiko dugun bezala, gazte antolakunde honen dinamika eta aipatutako ezaugarri hau guztiz ezinbestekoa da ondorengoa ulertzeko. Euskal Herria eta mundu osoan bezala, mugimendu alternatibo zein kontserbadoreetan, asko dira euren "ama" alderdiei egitura gisa edo organikoki loturik dauden gazte antolakundeak. Alderdiko sail gisa, gazte antolakunde hauek euren alderdikide helduez osatutako Zuzendaritzaren menpe daude. "Alderdiarekiko" lotura organiko honek euren planifikazioa, ekinbidea eta edozein dinamikarekiko erabakiak mugatzen ditu. **Horregatik, antolakunde hauek euren garapenerako eta dinamizatzeko gaitasuna murrizten dute, lan lerro konkretu batzuk jarraitu behar izaten baitituzte.**

Azpitarragarria iruditzen zaigun beste elementu bat esparru hauetan parte hartzen duten gazteen adinaren muga 35 urtera hurbiltzearena da; Euskal Herriko gazte antolakunde independentista eta sozialistaren militantzian 25 urtetik gorako kideak topatzea zaila baita. Era berean, militantziaren hastapenak orokorrean 20 eta 22 urte artean izan ohi dira eta hemen lehenago izan ohi da, 16 edo 18 urte bitartean gutxi gora behera.

Egia da beste garapen bat izan duten bestelako ezkerreko mugimenduak ere existitu direla. Talde autonomoak, anarkistak, ekologistak, feministak, antimilitaristak eta abar... "68ko maiatzeko iraultza" deiturikoaren inguruan jaiotako mugimendu sozialek beste era batean funtzionatu izan dute. **Hala ere, haietako asko ez dira gazte taldeak izan eta ez dute bere horretan gazte problematika landu. Interes orokorreko gaiak landu dituzte, eta hauei jende gaztea batu izan zaizkie.**

Europako zein munduko herri batzuetan aurki ditzakegun salbuespen batzuk ez dute gazte errealtatea era integral batean lantzen eta arlo konkretu batzuk soilik landu izan dituzte. Gainera askotan, talde edo antolakunde lokalak izan ohi dira eta ez erakunde nazionalak, ez dute herri oso baterako proiektu nazionalik. Horren adibide 2011ko Plazen mugimenduen ostean sortu diren kolektibo askok soilik Gazte Problematika garatu izan dute, baina ikuspegi integralik ezean, kideen adina handitzean desagertuz edo borroka ildoak aldatuz joan dira.

Zer da orduan Euskal Herriko gazte antolakuntzaren esperientzia deskribatzen duen aldagaia?

GAZTE IRAULTZA

Justuki, euskal gazteriaren garaipenik handiena Gazte Iraultza garatzea izan da. Baina zer da gazte iraultza? **Borroka global eta espezifiko bat garatu dugu, gazteen kontzientzietan eragiteko helburuarekin, betiere errealitatea eraldatzeko antolakuntza eta borroka kolektiboaren beharra azpimarratuz.**

Etxebizitza, hezkuntza, aisialdia, sexualitatea, kontsumoa, lana, feminismoa, kultura edo hizkuntza bezalako alorretan borroka planteamenduak garatu ditugu, gazte problematikari erantzunez maila lokalean, betiere sistemari kritika egiten dion diskurtso orokor baten baitan. Sistema kapitalista-patriarkalari aurre eginez, gazteriarentzako aldaketa eta alternatiba eskaintzen duen diskurtsoa, pertsona aske osatutako Euskal Herria Independiente, Sozialista eta Feminista bat eraikiz.

Milaka galaxia eta planetaz osatutako gazte unibertsoa sortu, pentsatu, eraiki, garatu, berritu, hobetu eta landu du gazteriak; kontzientzia hartu duen unibertsoa eta egungo unibertsoa iraultzeko antolatu dena. **Euskal Herriak bizi duen egoera orokorretik aldendu ez den gazte unibertsoa, eta gainera, gazte borroka Euskal Herriko Askapen Nazional eta Sozialaren Prozesuan zuzenean ekarpena egin duena.**

Ereduak, ideiak, hizkuntzak eta kodigo propioak sortu dira gazteria subjektu bereizi eta antolatu gisa azaltzeko. Diskurtsoak, dinamikak, plangintzak, ekintzak, proiektu propioak eta abar sortu dira praktika errebeldea hauspotu dutenak eta milaka gazte identifikatuta sentiarazi dituenak.

2.

**GAZTE BORROKA
INDEPENDENTISTA,
SOZIALISTA ETA
FEMINISTAREN
OINARRIAK**

- Gazte antolakuntza
- Zutabe estrategikoak: koiuntura politikoan eragin, gazte mugimendua dinamizatu eta alternatibak sortu.
- “Gazte mugimendua dagoen lekuan dinamizatu, eta ez dagoen lekuan sortu”
- Sistemari eta euren arduradunei kritika erradikala eta Alternatiba (proiektu politikoarena) diskurtsiboki azaleratu
- Alternatiben eraikuntza
- Gazte kontzientzia sortu
- Zeharkako lehentasuna: gazteon bizi baldintzen hobekuntza
- Borroka da bidea: kontraesanak azkartu eta hauek gainditzeko azaleratu (gatazka)
- Suntsitu eta eraiki: txanpon beraren bi aldeak
- Etika iraultzailea eta Herriaren, zapalduen eta Amalurraren parte izatearen kontzientzia hartu
- Perspektitiba politikoa, analisi eta formakuntza perspektiba (globala, nazionala eta lokala) sortu
- ENAMen parte izan, autonomiaz

Elementu hauek, genetiko-egiturazko gisa definitzen ditugu gazte antolakuntza-
ren esentzia mantendu duten eta mantentzen dutenak direlako. Guretzat, geure
organismoak funtzionatzeko behar dituen elementuen gisakoak dira. **Egiturazko
elementu guzti hauek beharrezkoak dira eta momentuko errealitatearen arabe-
rako intentsitatea aldatuz sortuz eta mantenduz joan dira. Hauetako bat ondo
garatu ez bada hori igartzen da.** Era berean, dena ondo joan dadin guztien artean
oreka mantentzea ezinbestekoa da.

Gutako batzuek gazte antolakundearen (“organismoaren”) bizitzako **momentu de-
sorekatuak bizi izan ditugu eta funtzionamendu krisi txikiak sortu izan dira.** Bai-
na, dena aztertu, berraztertu eta orekan jarri ostean, praktika egokitu, indartu eta
hobetu egin da.

Dokumentu honetan ez dugu gazte antolakundearen ezaugarritze osoa garatuko,
baizik eta bere esentzia mantentzeko beharrezko diren oinarrizko elementuak ai-
patuko ditugu. Gure iritziz gazte antolakuntza eta bere garaipenak (gazte iraultza)
posible izan daitezten.

GAZTE ANTOLAKUNTZA

Antolakuntza ezinbesteko elementua da emantzipatzeko asmoa duen edozein ez-
kerreko kolektiborentzako. Antolakuntza bera da borrokan motor gisa aritzen den
indarra. **Eztabaida eta borroka praktikorako eskola politikorik onenean bilaka-
tzen da gazte antolakuntza.** Analisiaren, eztabaida kolektiboaren, arrazoiketa po-
litikoaren, kritikaren edo plangintzaren arteak ikasten dira, besteak beste. Lanaren
banaketaren, ekintza kolektiboaren artea, kalean agitazioaren eta propagandaren
artea ikasten dira, aldarrikapenarena eta alternatiben eraikuntzarena.

Borrokari antolakuntzak duen paper ezinbestekoa gazteok geure larrutan esperimentatzen dugu. Ondo antolatuta, praktika era egokian garatuta, jarritako helburuak betetzen direla ikasten dugu horrela. Eskola, baina, egiazkoa da. Eta helburuak ez lortzen ere ikasten da. Kalkulu txarrez. Konstantziarik gabe lan egitean huts egiten dela. Baloratzen ere ikasten da.

Antolakuntzan hilabeteetan eta urteetan zehar bizitako esperientzia aberatsek hartutako konpromisoak indartzen dituzte. Bizitzarako bide gisa borrokaren balioretan berresten gara.

ZUTABE ESTRATEGIKOAK: EGOERA POLITIKOA ASTINDU, GAZTE MUGIMENDUA DINAMIZATU ETA ALTERNATIBAK SORTU.

Ernairen oinarrizko lanari dagokionean, berebizikoak zaizkigun hiru zutabe estrategiko ditugu. Lehen, Euskal Herriko egoera politikoa astintzea, bigarrena, gazte mugimenduaren dinamizazioa eta hirugarrena gazteriarik alternatiba integralak eskaintzea.

1) Egoera politikoaren astintzea koiunturak eskatzen dituen baldintza eta irakurketa politikoaren arabera egiten da. Hiru elementu nagusi bermatu behar ditugu beti.

1. Gazte zapalkuntzaren eta Euskal Herriaren zapalkuntzaren arduradunak salatu
2. Egungo sistema kapitalista-patriarkalaren kritika
3. Proiektu politikoaren defentsa (independentzia, sozialismoa eta feminismoa) Koiuntura politikoaren analisisen arabera anitzak izan daitezkeen lan lerroak finkatu behar ditugu. Hortik gazte antolakundearen plangintza, lehentasun eta dinamika proiektuak garatu ahal izateko

2) Gazte mugimenduaren dinamizazioa, gainontzeko gazte eragileetan militanteen parte hartze zuzenaren bidez egiten da. Parte hartze zuzena, umila, langilea, aktiboa eta eraginkorra. Ekarpinak egin asmoz benetako erreferente bilakatu behar dugu. Eredu izan behar dugu. Hori dela eta gazte militanteen %70-90ak gazte mugimenduko beste eragile batzuetan parte hartu behar dugu. Mugimendua sortuz, kontzientzia sortuz, borroka eta alternatiba errealak eraikiz.

3) Alternatiben sorrera. Gainontzeko bien uztartzeak gazte boterearen artikulazioa garrantzitsua, eta hau da gure zeregin behinena, alternatiben bidez gazte boterea bera artikulatzea. Etsaien kontra eta gure proiektuaren alde, eguneroko problematikari Nazio Erakuntzaren bidez proiektu zehatzen sorrerarekin erantzun beharko diegu. Batzuk xumeak izango dira, baina beste batzuk Bizi Eredu Berrien Eraikuntza martxan jarriko dute, ekoizpen eta kontsumo eredu berrien sorrerarekin.

Gazte antolakundearen osasuna eta bere ekinbide eta eragin politikoaren eraginkortasuna **hiru zutabe estrategiko hauen arabera neurtu behar da.** Ez bada dinamika egoki bat martxan jartzen testuinguru politikoari erantzuteko edo gazte mugimendua ez bada ondo dinamizatzen, zerbait gaizki egiten ari garenen sei-

nalea izango da. **Baina hori eginda, epe labur eta ertainean gazteriarri inolako alternatibarik eskaintzen ez badiogu militantzia eta praktika politiko abstraktu batean eror gaitzke.** Duten garrantziarengatik, hiru ideia edo zutabe hauek apur bat gehiago sakonduko ditugu.

>>SISTEMARI ETA EUREN ARDURADUNEI KRITIKA ERRADIKALA ETA ALTERNATIBA (PROIEKTU POLITIKOARENA) DISKURTSIBOKI AZALERATU.

Izaera estrategikoa dugun gazte antolakundea izanik, Ezker Abertzalearen baitako kritika eta eraikuntza egin behar dugu euskal gazteriarekin. **Hau da, Independentzia, Sozialismo eta Feminismoa ardatz, egungo sistemaren mugak azalerazi behar ditugu, eta gure proiektu politikoaren eraikuntzan sakondu.** Borroka ideologikoa deitzen diogu erronka honi. Argitzeko, gure proiektu politikoaren definizio teorikoa eta defentsa egin eta egungo sistemaren kritika etengabeko eta erradikala egitea, bestetik. **Egungo sistemaren problematika ororen erroetaraino joaz, eta era antagonikoan azalduz gazteon burujabetza eta sistema kapitalista-patriarkar espainol eta frantsesak.**

Gure zapalkuntzaren erantzule zuzenak ere salatu beharko ditugu. Zapalkuntza abstraktua ez dela uler dezagun, gure miseriaren atzean aberasten ari diren izen-abizenak badaudela ulertzean, aldaketa posible dela ikustarazten dugulako. Gainera kontraesanen teoriarekin bat, euren eta gure arteko dikotomia markatzean, talkaren alde batera zein bestera kokatzera bultzatuko dugu gazteria. Azken batean, gazteriarri bere etsaiak zein diren ikusarazi behar diogu, horiekiko kontraesanetatik eraldatuko baitugu egoera.

Honetarako tresna komunikatibo eta teorikoak erabili behar ditugu. Noski, nahastu gabe bata bestearekin. Gauza bat da gure proiektu eta erronkak politikoki zehaztea, eta beste bat hau gazteriarengana zabaltzea. Ez dira noski era isolatuan ulertu behar, baina ezta ere berdina izango balira bezala. Batzuetan komunikatiboki eraginkorrak diren estetika eta mezuak erabiliko ditugu, zeinetan ez den horren esplizitua gure mezua (gehiago emozioetatik...) eta besteetan ez ditugu, marketingaren aitzakiapean mezu erradikalak alboratuko.

>>“GAZTE MUGIMENDUA DAGOEN LEKUAN DINAMIZATU, ETA EZ DAGOEN LEKUAN SORTU”

Jarraitzen V. kongresuko esaldi honek argi eta garbi sintetizatzen du gaur egun ere gazte antolakundearen zeregin nagusienetako bat. Esaldi hura 90. hamarkadaren bigarren erditik aurrera ehunka gazteren praktikaren erdigune bilakatu zen. Gazte mugimenduaren dinamizazioa elementu estrategikoa da Euskal Herriaren etorkizunerako. Iraultza nazional eta soziala egiten saiatzen ari bagara, jendea antolatu beharra dago eta Gazte Antolakundearen funtzioa gazteria antolatzea izan behar da. Hori egiteko modurik hoberena, mugimendu zabalean aukera ezberdinak eskaintzea da, euren errealitatearen, ezinegonen, beharren, nahien eta aukeren arabera jendeak antolatzeako aukera izan dezan. (Dinamizazioaren arazoak aurrerago azalduko ditugu)

>>BIZI EREDU BERRIEN SORRERA

Sistemaren barneko borroka eremuan jokatu eta eragin behar dugu, bere baitako mugak, eragiten dituen zapalkuntzak, injustiziak... azaleratzeko. Baina, horrekin batera ezinbestekoa da borroka eremu berriak sortzea. Sistemak zehazturiko logiketatik kanpo, gazteok ditugun behar, balore eraldatzaile, etika iraultzaileetan... oinarrituko diren borroka eremuak: alternatibak.

Gure egiteko nagusia den hirugarren zutabea ezinbestekoa da era egokian ulertzea. Alternatibak eskaini behar dizkiogu gazteriarri, izan ere, ezin diogu gazteriarri garaipenaren egunaren zain egon daitezen eskatu. **Alternatiba oro hein batean partziala den arren, eraiki nahi dugun jendartearen oinarria izatea nahi dugu, modu horretan artikulatzen dugularik gazte boterea.** Sistemarengandik independizatzea, ahal dugun heinean, da gazte ahalduntzea. Beti era kolektibo eta estrategikoan garatu behar dugularik hau.

GAZTE KONTZIENTZIA SORTU

Zapalduaren kontzientzia hartzea zapalduaren antolakuntzarentzat ezinbestekoa den bezala, **gazteon antolakuntzarako, gazte kontzientzia sortzea ezinbesteko elementua da.** Gazteok mundu arrotz batean bizi gara era ezberdinetan eta anitzetan esplotatzen gaituztelarik. Gainera, sistemaren helburuetako bat gaztaroaren garapena murriztea eta oztopatzea da.

Haurtzarora luzatu eta heldua izateko adina jaitsi egiten dute. Azken hamarkadetan eman den infantilizazio prozesuaren ondorioz (hezkontza sistemaren bidez batez ere) gaur egun 18-22 urtera arte ume bezala tratatzen gaituzte eta 20-22 urtetik aurrera heldua izaten hasi behar duzu (ikasketak, lanpostuak, ardurak...). **Sistema, eta honen baitan, Helduen Boterea fase sozial-gaztea mugatzen saiatzen da.** Kontraesan bat ere ematen da, gaztaroa kontsumo-ideal bezala eraikiz eta honek emakumeontzako gaitetzeko kosmetikoak eta gizonentzat gazte esperientziak saltzen dizkigute. **Baina gazteria guk geuk osatzen dugu kategoria sozial bezala, eta beraz, botere harreman bezala.** Ez dago adinari lotuta, jarrera eta baldintzei baizik.

Gazte antolakundearen lana, gazte kontzientzia sortzea da eta horretarako behar diren diskurtso, dinamika eta espazioak eraikitzea. Gazteriarentzat lan egin behar dugu, honi begiak irekitzeko helburuarekin bere zapalkuntzaz jabetu dadin. Horregatik, gazte ezaugarritzea duten forma, diskurtso, kodigo, diseinu, moda eta edukiak sortzeak berebiziko garrantzia du.

Gazteriak bizitza perspektiba ezberdina du. Gazteon benetako errealitatea azalarazi eta zapalduak gaudela ikusarazi behar dugu eta gazteak ideia honekin identifikatzea lortu behar dugu. Elementu erakargarriak, freskoak, arriskatuak eta apurtzaileak martxan jarri behar ditugu. Gazteoi, helduei baino hurbilagoak eta erakargarriagoak egingo zaizkigun elementu erradikalagoak behar ditugu. Horre-

gatik, gazte antolakundearen obsesio bilakatu behar da bere dinamika eta diskurtso guztietan, eduki zein formetan, **esplizitu, fresko, dinamiko eta gaztea izatea**, azpimarratuz eta exageratuz behar izanez gero (gazte indarraz, gazte danbada, gaztemartxa, gazte eta aske, gazte..).

Laburbilduz, gazte antolakundeak bere gazte perspektiba galduz gero, iparra galduko du. Gure izatearen perspektiba galduko genuke, gure identitatea, finean, esentzia. Beraz, gure funtzio eta praktika politikoak eraginkortasun guztia galduko luke.

ZEHARKAKO LEHENTASUNA: GAZTEON BIZI BALDINTZEN HOBETZEA.

Momentu historiko ezberdinetan, gazte antolakunde ezberdinek behin behineko irristaldi batzuk eduki izan dituzte orientazioari eta bere diskurtso eta jardunaren edukiaren helburuei dagokionean. Bai gazte mugimenduaren dinamizazioari dagokionean, zein dinamika propio batekin koiunturan eragiteari dagokionean. **Momentu ezberdinetan eta arrazoi ezberdinak medio, erabaki okerrak edo behintzat ez egokiak hartu dira gazte mailan. Ekinbiderako bide ezberdinak hautatu behar ziren (gerora egindako balorazioek erakutsi zuten bezala).**

Garai ezberdinetan garatutako bi adibide argigarri jarriko ditugu: 2005-06ean tesuinguru politikoan eragiteko dinamikari dagokionean, lehentasunezko dinamika gisa komunikabideei kritika egiten zion kanpaina planteatzea; gazte mugimenduaren dinamizazioari dagokionean, gazte mugimenduak espazio alternatiboetan ekimen kultural eta musikalak antolatzeko hedapena. **Bai lehen kasuan zein bigarrean, akatsa dinamikak lehentasun bakar gisa ulertzea izan zen.** Hau da, gazte antolakundeak noski egin ditzakeela komunikabideen aurkako kanpainak. Egin ditzake eta egin beharko lituzke. Eta gazte mugimenduak, noski, kulturgingintzako ekimenak antolatu ditzake. Egin ditzake eta egin beharko lituzke. **Baina ez lehentasun bakar gisa.**

Laburbilduz. Egoera horren aurrean, eta beharrezko balorazioak egin ostean, ondorengo ondorioak atera ziren:

- 1.- Gaztez osatutako gazte antolakundeari, pertsona diren heinean, jendartearen problematika orokorrek eragiten diote; bestalde, gazteak diren heinean, gazte problematikak zuzenean eragiten diote.
- 2.- Baina, gazte antolakundeak **GAZTE PROBLEMATIKA LEHENTASUN GISA LANDU beharko dugu**, espezifikoki hala egingo dugun bakarrak baikara. Arazo orokorrei gazte perspektibarekin erantzun behar diogu eta ez dugu zertan lan hori alde batera utzi behar. Hori noski, ez da helduek darabilten diskurtsoari "gazte" aurritzia gehitzea soilik, gazteoi modu espezifikoa nola eragiten digun ulertu eta horren arabera jokatzeko asmatu behar dugu.
- 3.- Aipatutako bi puntu horien ondorioz, eta gazte antolakundeak duen izaera iraultzaile eta eraldatzailea dela eta, **GAZTERIAREN BIZI BALDINTZEN HOBETZEA**

lehentasun gisa landu behar dela erabaki zen. Jendartearen bizi baldintza sozioekonomikoetan eta inposatutako bizi ereduaren eraldaketaren perspektibarekin ulertuz.

4.- Gazte antolakundeak bidean azal daitezkeen salbuespenetzko egoeren aurrean soilik utziko dio lehenetasun gisa hau lantzeari.

BORROKA DA BIDEA: KONTRAESANAK AZKARTU ETA HAUEK GAINDITZEKO AZALERATU (GATAZKA). BORROKA ERRADIKALA ETA ERALDATZAILEA

Lehen aipatutako “irristaldiak” ez dira soilik edukian eman, **ekinbide politikoaren garapenean ere akatsak egon dira.** Beste bi adibide jar genitzake: koiuntura politikoan eragiteari dagokionean, bankuek eta euren onurek jokatzen duten paper informatibo soila; gazte mugimenduaren dinamizazioari dagokionean, aisialdiarekin lotutako jardueretan emandako hedapen orokortua. Aurreko puntuaren antzera, edukari erreferentzia eginez, kasu honetan formari erreferentzia eginez, logikoki gazte antolakundeak eta gazte mugimenduak garatu beharko genituzkeen jarduerak dira: informazio eta aisialdirako jarduerak. Hala ere, ez da gure praktikaren oinarri nagusia izan behar eta dinamika orokorra honen gainen eraiki.

Analisi ezberdinen ostean ondorengo ondorioak atera genitzake:

1.- Hauxe eta praktikarako beste formatu batzuk beharrezkoak eta osagarriak dira, baina ez praktika zentrala.

2.- Gazte antolakundearen eta gazte mugimenduaren **praktika nagusia “gatazka” eragiten duten praktikak garatzea izan behar da.** Gatazka sozialaren bitartez kontraesan konkretuak azkartzen ditugu esplotazio egoera edo egoera bidegabeen aurrean. **Ezkutuan dauden kontraesanak aineratuko dituen borrokak, arazoak konponbidean aurrera egiten lagunduko dute.** Horretarako, arazoaren erroa jo behar dugu, honela aurreratzen da gehien. Geure praktikak erradikalki eraldatzailea behar du izan.

3.- Gatazka soziala eragiten duen borroka gazteen praktikaren oinarria izan behar da, eta **beste beharrezko praktikek osagarriak izan behar dute** (informatiboak, formakuntzara bideratutakoak, ludikoak, kirol arlokoak, agitazioa, propaganda, komunikazio arlokoak eta abar). Hala, praktika askatzaile erradikal bat sortuko da errealitate sozialean eta gazteen kontzientziak astintzeko eta baldintzatzeko gai izango dena.

BORROKAREN, KONTRAESANAREN ETA GATAZKAREN INGURUKO APUNTE ARGITZAILE TXIKI BAT

Gatazka, geure pentsamolde dinamikoaren ikuspegitik, materialismo dialektikoa hain zuzen, EZ da suntsitzailea den zerbaiten gisara ulertzen, bizitzaren oinarri gisa baizik. Unibertsoa mugitzen duen elementua bezala, edota gizateriaren historia soziala mugitzen duena bezala. Gatazkek eragiten dituzten kontraesanak gaindituz egiten da aurrera borrokan. Horregatik, gatazkaz hitz egiten dugunean, modu eraikitzailean egiten dugu. Normalean, pentsamolde formalean, gatazka txarra den zerbait bezala ulertzen da, suntsitzailea dena. Eta egia esan, gatazka mota hori ere existitzen da (kapitalismo-patriarkarrak sortzen dituen gatazka gehienak suntsitzaileak dira). Baina, gatazka guztiak ez dira suntsitzaileak. Gatazka gabe, ez dago mugimendurik eta mugimendu gabe ez dago bizitarik.

Zapaltzen gaituen sistema kapitalista-patriarkarra kontraesanak ezkututzen edo ez ikustarazten saiatzen da, hauexek baitira gure zapalkuntzaren oinarriak. Horregatik, erakunde iraultzaile ororen oinarritzko betebeharra kontraesan sozialak azalratzea da, gatazka sozial eraldatzaile eta eraikitzaileen bidezko borroka sortuz.

Horrexegatik, premisa hau gazte antolakundearen bizitzan oso presente izan behar dugu. Erakunde iraultzaile gisa, geure helburua jendartearen eraldaketa lortzea da. Horretarako ezin dugu ahaztu geure praktika politikoa gatazka soziala sortzera bideratu behar dugula. Hau ahazten badugu eta kontuan hartzen ez badugu, ekinbide eraldatzaile eta erradikalaren perspektiba galtzen da.

SUNTSITU ETA ERAIKI: TXANPON BERAREN BI ALDEAK

Gazte antolakuntzaren urte guzti hauetan esperientziaren pilaketaren bidez garatutako beste perspektiba estrategiko bat, bi norantzako (dialektikoa) ekinbide eta diskurtsoa garatzea izan da, sunsiketarena eta eraikitzearena, kritikarena eta alternatibarena.

Planteamendu hau jendartearen eraldaketaren garapen eta sakontzean oinarritzen da. Horretarako, nahi ez dugunaren aurka borrokatzen dugu eta nahi dugunaren (proposatzen dugunaren) alde borrokatzen dugu. Gainditu behar denari aurre egiteko borrokatzea planteatzen da, zapaltzen gaituenaren, sistemaren eta bidegabeak diren egoeren zein errepresioaren aurrean borroka da dugun planteamendua.

Bestalde, alde gauden horren alde borrokatzeko planteamendua dugu, nahi dugun horren eta geure egoera hobetzen duen planteamendu alternatiboaren alde. Zapalduon bizi baldintzak hobetuko lukeen eskenatoki bat nahi dugu.

Urte askotan, munduko txoko askotako ezkerren praktika **sistemari kritika egitean oinarritzen zen**. Euskal Herrian, garai batzuetan ere hala izan zen, batez ere, errepresio gogorak geure jarduna baldintzatzen zuen garaietan, erantzunera eta

errepresioaren salaketari kondenatuak geunden garaietan. **Intentsitate gutxirekin bada ere, betiere proposamenak plazaratzen asmatu dugu.**

Askotan, ordea, munduko beste txoko askotan bezala, proposamen edo alternatibak leku bakoitzeko ez dira izan. Apologia egiteko balio izan dute lekuak, eslogan soiletan geratzen zirenak.

1992. urteko Ezker Abertzalearen krisiaz geroztik, alternatiba eta proposamen ezberdinez gain, nazio eraikuntzako planteamendua diseinatuko da, egunerokotasunean era aktibo eta dinamikoan geure helburuak lortzeko era hoberen gisa. Izan ere, konfrontazio fase luze baten ondorioz Euskal Herria galtzen ari ginela hausnartu zen.

Beraz, alternatiben eraikuntza zuzen eta aktiboa planteatzen hasi zen. **Lelo handien eta proiektu handien inguruan hitz egitea alde batera utzi, hitzetatik ekinzetara igarotzea lehenetsiz: NAZIO ERAIKUNTZARA salto egitea.** Inurri lana hastea, Euskal Herria eraikitzen hasteko, ekintzen bidetik, autodeterminazio aktiboa praktikan jartzean, geure egunerokotasunean autodeterminatzea, hain zuzen. "Zerbaiten alde borrokatzeko, praktikaren bitartez egitea baino hoberik ez dago". Eraikuntza planteamendu hau alor ezberdinetara hedatu zen, gazteena euren artean.

Planteamendu dialektiko honek, suntsitu-eraiki (kritika-alternatiba), gazte antolakundearen emantzipazio erradikal eta eraldatzailearen praktikaren parte izan behar du. Apurtu/eraiki planteamendu dialektikoa genetikoki (zeharka eta egitura aldetik bere baitan hartzen du.

APURTU-ERAIKI DIALEKTIKAREN APUNTE TXIKI BAT

Bada ezkerreko militanterik geure helburuak lortzean, "mundua askatzen denean" borroka amaitzen denaren eta gehiago borrokatu behar izango ez denaren pentsamendu okerra duena. Hau faltsua da. Borroka jarraituko du. Beste era batean, baina jarraituko du. "Mundua askatzen denean" soilik eraiki behar dela uste du jende askok ere, "jada ez dela kritika eta suntsipen lanik egin behar". Hau ere faltsua da. Lehen esan bezala, kontraesana, bizitza naturalean eta sozialean mugimendua eragiten duena ez da desagertuko "mundua askatzen denean". Askatasunerako borroka ez du amaierarik. Amaigabea den prozesua da. Garrantzitsuena ez da amaiera, bidea eta bidean lortzen diren helburuak baizik. Mao Zedong-ek "Herriaren baitako kontraesanei buruz" idatzian esan bezala, kontraesanak garatzen joango dira sozialismoan (komunismoaren bideko trantsizioan) eta gainera, komunismoan zehar (klaserik gabeko jendartearen) ere garatzen joango dira. Komunismoan kontraesan antagonikoak desagertuko dira baina antagonikoak ez diren kontraesanak garatzen joango dira jendartearen garatu eta honi onurak ekarriko dizkionak. Beraz, Euskal Herria independente, feminista eta komunista batean, apurtu-eraiki borroka dialektikak garatzen jarraituko du. Arriskuak egongo dira, gauzak ustelduko dira, elementuak, planteamenduak eta pentsamoldeak zaharkituta geratuko dira... eta eraikitzen jarraitzeko suntsitu beharko da. Gazte antola-

kundeak bere plangintzetan oso presente izan beharko du apurtu-eraikiren dialektika hau "Gazte Herriaren" borrokan. Izan ere, hobetuz joan behar du, posible den heinean, eraikuntza dinamikan sakonduz.

ETIKA IRAULTZAILEA ETA HERRI, ZAPALDU ETA AMALURRAREN PARTE GARENAREN KONTZIENTZIA SORTU

Gazte kontzientzia sortzeaz gain, gazte antolakundeak bere praktika zein diskurtsoan, edukietan zein formetan, **herri kontzientzia, emakume zapalduen kontzientzia, klase kontzientzia eta Amalurraren parte izatearen kontzientziak barnebidu behar ditu.**

Gazteak Botere Helduarengandik sufritzen duen zapalkuntzaz gain, gazte izateagatik, pertsona den heinean, beste zapalkuntza batzuk ere bizi ditu. Amalurraren zapalkuntza, sexu-genero zapalkuntza, nazio zapalkuntza eta klase zapalkuntza. Badira gehiago baina gainontzekoak hauexetan oinarritzen dira. Euskal Herriko gazte batek horiek denak sufritzen ditu eta horiek denak borrokatu behar ditugu beraz: Herria, Sexu-genero, Klasea, Amalurra.

Kontzientzia eta etika iraultzailea sortzeaz gain, beste erronka ezinbesteko bat, erantzukizuneko praktika garatzea izan behar du. **Hau da, gure balio sistema guztiz aldatuko badugu, gure eguneroko bizitza aldatuko dugu.** Ez digu ezertarako balioko diskurtso feminista garatzea, praktika feministarik garatuko ez badugu: emakumeok ahalduz feminista garatuz, gizonok gure pribilegioei uko eginez. Era berean etxebizitzaren kritika bat egiten badugu, ezingo gara hipotekan sartu banketxeekin, edo kontsumo eredia kritikatzin badugu, ezin dugu multinazionalen produktu eta salmentetan kontsumitu... **Balioen iraultza bultzatu behar dugu.**

Bidenabar, hau da Ezker Abertzalearen berezko ezaugarri historiko bat ere. **Nor garen, zein ideologiak definitzen gaituen eztabaidatu baino, gure praktikak definitzen gaituela.** Oinarritzko teoria iraultzailearen baitan egiten dugun ekintza programak definitzen gaituela hain zuzen. Horregatik Ezker Abertzalearen baitan bere burua komunistatzat, abertzaletzat, feministatzat, libertariotzat duten kideak ditugu. Honek zatiketak gainditzea eta urte luzez mugimendu iraultzaile herritar zabala garatzea ahalbidetu digu.

PERSPEKTIBA POLITIKOA, ANALISI ETA FORMAKUNTZA PERSPEKTIBA (GLOBALA, NAZIONALA ETA LOKALA) SORTU.

Gazte antolakundea den eskolaren baitan asko dira ikasi eta irakasten diren gauzak. Jarraian, borrokaren garapenean erabakigarria den elementu bat azpimarratzen ari gara. Gazte antolakundean perspektiba politiko egoki batekin gaituak diren pertsonak sortzen dira, egoera ezberdinak aztertzeko eta politikoki formatzeko gai direnak.

Ezagutzarako eta analisirako gaitasunak areagotzen direnean eta gure pentsatze-

ko gaitasunak hobetu ahala, borroka askatzailea maila kualitatibo hobera igotzen da. Pertsona batek dituen tresnarik onenak burua eta eskuak dira. **Tresnarik onena gure ideiak dira eta eskuak eurengatik borrokatzeko erabili behar ditugu.** Geure eskuek hamaika gauza egin ditzakete baina buruak esaten dionari bakarrik egingo die men. **Geure ideiak garatzeko gai ez bagara, zailtasunez garatuko dugu praktika egoki eta errebelde eraginkor bat, etengabean ikasten berritzen eta hobetzen dagoena.**

Gazte antolakundea, eztabaida kolektiboa etengabean sustatzen duen eskola da. Ehunka bilera eta asanblada egiten dira, gure praktika politikoa garatzeko eta plangintzatzeko hamaika ordu pasatzen ditugu bilduta. Hala ere, askotan ohitura txarrak hartu dira bileretako dinamiketan. Batzuetan zenbait gauzari denbora gutxiegi eskaini izan zaio, besteetan, denbora gehiegi eskaini zaio informazio transmisio soilari eta ez eztabaidari, beste batzuetan eztabaidarako denbora falta egon da.

Autokritika gehiegi ez da inoiz kaltegarria. Batzuetan autokritika pesimismoarekin nahasten dugu eta badirudi flagelatzeko denbora galtzen dugula. Baina eztabaidarik gabe ezin dugu hobetu, garatu eta beraz, irabazi. Ikasi behar dugu eztabaidatzen eta autokritika egiten. Betaurreko *apreziatiboak* jarrita, optimismo erradikalaren bidez ikusi, aztertu eta landu behar ditugu gure akats eta bertuteak.

Eztabaidaren beharra, garrantzia eta bideragarritasuna antolakundeko maila guztietan ulertu behar dugu eta praktikan jarri. **Denari “amen” egiten dion militantea ez da kide diziplinatua, ardi bat baizik.**

2.

HISTORIAREN ERREPASOA

1.

ITSASGORA ETA ITSASBEHEREN ZIKLOAK

Gizakiaren historia, naturaren historia bezala, itsasgora eta itsasbeheren dialektikaz dago osatua. **Mugimendu iraultzaileen historia ere aurrera eta atzera dinamiken dialektikak zeharkatzen du** eta noski Euskal Herriko historiak ere hori erakusten digu. Itsasgora eta itsasbehera une hauek, aurrera eta atzera pausuek, eboluzio eta inboluzioek, espansio eta atzera-egiteek, akzio eta erreakzioak, elementu ezberdin eta konplexuek determinatzen dituzte. Indar subjektiboen arteko interakzioak askapen prozesuaren alde edo kontra, errealtate objektiboen interakzioak momentu hauek baldintzatzen dituzten bezala.

Denok ezagutu ditugu aurreratze uneak, zeinetan mugimendu abertzale eta errebeldeen dinamikak handitu egin diren eta biderkatu egin diren, emaitza onak jasotzen lan eremu ezberdinetan, baita egoera politiko berriak sortzen. Baina ezagutu ditugu geldialdi momentuak, krisiak eta atzerapausoak ere; zeinetan baldintzak zailagoak jarri diren eta indar militanteak ahuldu egin diren.

Epe luzeko perspektiba batean, maila mundial eta lokalean, borroken lehertze fase ezberdinak ikusi daitezke. Indar iraultzaileen fluxuak, kualitatibo zein kuantitatiboki herri sektore eta langile klasearen lorpenak aurrera egitea baimendu dutenak. 1848, 1871, 1917, 1960ko aurreko eta ondoreko urteak, 2011 eta plazen zikloek borrokaren aurrerapenak erakutsi dituzte. Hedapen fase hauen ondotik atzerapauso fase batzuk etorri dira. Euskal Herrian eta munduko beste herri batzuetan, fase hauek nabaritu diren arren, bestelako fase propio eta espezifikoak ematen dira.

Aurrerapauso-atzerapauso (itsasgora-itsasbehera) errealtate dialektiko hau azaltzeko logika totalizatzaile bat garatu behar da, prozesuak ikuspegi konplexutik begiraturiko dituena, elementu guztiak aztertuko dituena eta euren artean inter-erlazioatuko dituena. Militantziaren indar subjektiboak, garaturiko dinamikak, situazio objektibo eta historikoaren ezaugarriak, egoera sozial eta psikologikoa, egoera ekonomikoa, aldaketa kulturalak, belaunaldi berrien inkorporazioak, sistema errepresiboak, etsaiaren estrategiak, gure efektibitatea eta dinamismoa, gure planifikazio eta planteamenduak, egoera internazionala... eta abar. Laburtzeko, prozesu sozial, politikoen, kulturalen eta ekonomikoen barne eta kanpo kontraesanak kontuan hartu behar dira, eta beraien eragina errealtatean eta jendarteko aktoreetan (indar iraultzaileak, indar faxistak, erregionalistak...) eta bere kapa desberdinak (jendartea orokorrean eta klase desberdinak), baita bere eragina maila lokal, nazional eta internazionalen.

Guzi hori gure errealtate objektibo eta subjektiboa ezagutzeko eta fase hauen aurrean prestatu eta egoera berriei ahalik eta hoberen aurre egiteko ezinbestekoa da. **Prozesu ezberdinetan parte hartzen duten faktoreen gaineko ezagutza handi bat eduki ezean, egoera berrietara prest ez egotea eraman gaitzake bai eta aurreikuspen edo planifikazio txarrak egitera.** Planifikazio txar batean egon daitezkeen ekintza eta dinamika okerren erruz, gure helburuen lorpenenean aurrera urratsik ez emateaz gain, atzerapausoak ematera eraman gaitzake ere.

Gazte antolakundeak eta gazte iraultzaren estrategiak bere itsasgora eta itsasbeherak bizi izan ditu. Momentu hauek ezagutzea eta bere funtsezko elementuak

aztertzea Gazte Antolakundeak egin beharreko ezinbesteko lana da gure historia-
ren ezagutza ahalik eta handiena izateko. Baina ez soilik ikuspegi testimonial edo
azaleko bat edukitzeko, hau da, ez soilik jakiteko zein urtetan jaio zein antolakun-
de bat edo beste, edo zein urtetan hasi zen kanpaina jakin bat. Baizik eta askoz
ikuspegi zabalago eta osoago batekin, praktika errebeldearen kausa eta efektuak
aztertuz, borrokaren logikan sakonduz. Hau ez litzateke iragana modu aseptikoan
ezagutzeko perspektibarekin, baizik eta antolakunde iraultzaile orok barnera-
tu beharko lukeen perspektibatik. Bere iragana erraietaraino ikasi eta aztertzea,
akats eta asmatutakoak ezagutu eta bertatik ikasteko, orainean modu eraginko-
rrean funtzionatu ahal izateko eta etorkizuna efektiboki baldintzatu ahal izateko.

Hemen ez dugu lan hau garatuko. Baina ariketa txiki bat egingo dugu errepaso txi-
ki bat eginez azken 38 urteetan bizitako itsasgora-itsasbehera faseak modu azkar
batean ikusi eta aurrera begira ondorio txiki batzuk atera ahal izateko. Fase hauek
gazte errealitate berezi eta espezifikoengatik determinatua dago, nazio askapen
prozesuaren errealitate espezifikoari lotuta betiere.

GAZTE BORROKAREN MAREAK EUSKAL HERRIAN (1979-2017)

Tamaina eta sakonera ezberdinak izan dituen itsasgora-itsasbehera zikloak izan
dira Euskal Herrian. Batzuk ikusgarriagoak, beste batzuk sakonagoak, iraganko-
rragoak, luzeagoak... gainera herri bakoitzean eta gazte mugimendu espezifikoen
barruan, nork bere fase propioak izan ditu.

Hemen soilik itsasgora-itsasbehera fase nagusiak aipatutako ditugu. Euskal He-
rriaren mailan egin direnak eta epe luzeko ikuspegitik ikusarazi daitezkeenak. Fase
bakoitzak, noski bere ezaugarri konkretuak izango ditu eta ez gara gai izango he-
men behar bezala azaltzeko.

Gazte itsasgora-itsasbehera fasea denboraldi luze bezala defini dezakegu, zeinetan
azpi-aldietan garatzen den:

1.- Indar metaketan aldia: denboraldi honetan indar metaketa bat ematen da
(esperientzia praktikoa eta ezagutza teorikoen akumulazio batekin) gazte mug-
imenduaren dinamikan eta hedapenean aurrerapauso bat suposatzen duena. Garai
honetan, lan egiten da, planteamenduak garatzen dira, autokritikak egiten dira,
plangintzak eta lan konstante bat, gutxika baldintza berriak sortzen dituenak, nahiz
eta ez duen oihartzun publiko eta praktikorik (ez behintzat itxuran eta lehen be-
giradan).

2.- Aurrerapen eta hedapen aldia: metaturiko indarrek ekimen eta dinamiketan
leherketa bat ekartzen dute. Oihartzun edo ondoriorik ez zuela zirudienak, egune-
roko lan txikiek gazte mugimenduaren jardueran leherketa bat suposatuko dute,
salto kualitatibo bat, baldintza berriak sortuko dituenak Gazte Borrokan. Aurrera-
pen garai nabari bat da, eta honela bizi dugu.

3.- Gelditze edo desajuste aldia: garai honetan, jardunaren zabaltzea gelditzen

doa, eta hedapenaren abiadura moteltzen da. Ekimenen jaitziera honetan, egiten diren planteamendu edo kudeaketan arabera, latzagoa izan daiteke edo xamurragoa. Garai honetako *desajusteak* kausa ezberdinengatik izan daitezke, noski, oso indartsua baldin bada, krisia ekar dezake. Jokoz kanpo harrapatu bagaitu eta ez bagara aurre hartzeko gai, krisi sakonera eraman gaitzake.

4.- Analisi eta egokitze aldia: laugarren garai honen ezaugarri nagusia egoeraren azterketan oinarrituko da, gelditzearen kausak eta errealitate berriaren nolakotasunak aztertuko direlarik. Periodo honetan *desajusteak* egokitzea bilatuko dugu. Bere iraupena eta bere berritasunaren arrakasta *desajusteen* tamainaren eta aurre egiteko eduki den gaitasunaren arabera izango da. Lehenago edo beranduago *desajusteak* egokitzean indar metaketa garaiari hasiera menago zitzaien, errealitate berrira egokituriko dinamika berriekin.

Gure iritziz, azken 35 urte hauetan asko-gutxi 3 itsasgora-itsasbehera fase igaro ditugu. Orain laugarrenean geundeke. Fase hauek 8 eta 13 urte artean iraungo dute, baten amaiera eta bestearen hasiera nahasten direlarik, horregatik, hamarkadetan sinplifikatu dugu. Errez eta azkar ikus dezakegu nola 80, 90 eta 00 erdialdeetan mugimenduaren leherketa eta hedapena eman den, hiruetan hamarkadako gailurrak izanik. Fase eta azpifaseak ikus daitezke baina ezin dira modu zehatzean finkatu. Hala ere, hurbilpen bat egiten saiatu gara.

80. HAMARKADA: 1. FASEA (1979-92)

1.- Indar metaketan aldia: (79tik 83-84era +/-) 1979an Jarrai gazte antolakundea sortu zen. Lehen urteetan Euskal Herriko hiri eta herrietan egituratzeko eginkizun ezinbestekoa izan zuen. Ia otik hasi behararen zailtasuna, antolakunde berriaren erakargarritasunak orekatu zuen. Egituratzan doan heinean geroz eta gehiago definituko du bere lan egiteko modua eta Euskal Herri osoan bere lana garatzen hasiko da. Gazte militantziak, gutxinaka, Euskal Herriaren bitzita sozialean zuzenean eragingo du. Lehen indar metaketa garaia da hau.

2.- Aurrerapen eta hedapen aldia: (83tik 87-88ra +/-). 1983tik aurrera antolakundeak bere lanaren ondorio nabarmenak nabarrituko ditu. Alde batetik 80 hamarkadako gazte mugimenduaren lehertzea garrantzitsua izango da: fanzineak, irrati libreak, musika taldeak, gaztetxeak, gazte asanbladak... BOOM bat eragin zuten gazte kontzientzia eta errealitatean. Beste alde batetik, Gazte Antolakundearen erreferentzialtasunak gorpuztu egingo da.

Diktaduratik ateratzen ari den jendarte batek egituratzen zuen errealitate soziala. Gazteriaren askatasun eta errebeldia gogoak testuinguru horretan handitu egin ziren. Beste alde batetik, desindustrializazioa eta krisi ekonomikoa gazte askoren haserrea erakusteko detonantea izan ziren. Gatazka politiko eta armatuaren ezaugarritzea autonomistek Estatuak eskainitako ogi-apurrak kudeatu nahi izateko apustuan oinarritzen da, herrialdeen banaketa onartuz. HBk oso emaitza elektoral onak lortuko ditu. Gatazkaren urte oso gogorak dira, "berunezko urteak". GAL sortuko du estatuak.

3.- Gelditze edo desajuste aldia: (87tik 89 +/-). Urte batzuk pasata, 1987 aldera, gazte hedapena gelditu egiten da 2 urtez. Geldiune honek aktibitatea gutxitzea ekarriko du eta krisi sentsazio bat Gazte Antolakundearen barruan, gazterian eragiteko gaitasuna gutxituko baitu. Garai honetan (urtarrilean) IV. kongresua burutu zen, zeinetan lehentasun bezala drogomenpekotasunaren kontrako edo intsumisioaren aldeko borroka ildo berriak martxan jartzea erabaki zen, izugarritzko garaipena izango zutenak.

Botere ekonomiko, politiko eta instituzionaletatik hedapen hau tresna ezberdinen bidez borrokatuko da: errepresioa, eskaintza instituzionala, droga eta kontrol soziala. Mugimendu independentistaren errepresioa eta kriminalizazioa ZEN plana-ekin (zona especial norte) jarriko da martxan. Gazte Antolakundeko kideak kriminalizatu eta erreprimituak izango dira, baina baita gazte mugimenduko kideak ere. "Sospechosos" kanpaina jarriko da martxan, oihartzun handikoa. GAL-eri loturiko eskuin muturreko agenteek gazte militanteei jipoiak emango dizkiete, presio siko-logikoa handitze bidean. Beste aldetik, instituzioetatik aurrerapausoei aurre egin nahiko zaie gazteriarri zuzenduriko hainbat proiektu sustatuz, "integratu", "kanalizatu" eta "hezteko" asmoekin. Europako beste lekuetan arrakastaz aplikaturiko estrategia izanik: gazte programak, gazte zentroak, Euskadi Gaztea... Azkenik, kontrol sozialak eta gazteriarren desaktibazioa lehentasuna bihurtu zuten. Horretarako poliziak droga kantitate handiak sartu zituen (heroina...) krisi ekonomikoak gogor jotako langile guneetan eta ezkertiar gazteria zegoen lekuetan. Urte gutxitan ehunka gazte engantxatuko dira eta desaktibatuko dira.

Errealitate soziala krisi ekonomikoaren ondorioek markatzen dute oraindik. Gatazka politiko eta armatuak gogorra izaten jarraitzen du. GALen ekintzak konfrontazio armatua azkartuko dute. Kanpaina handiak egiten dira negoziazio prozesu bat derrigortzeko, HB-k kanpaina hauei errentagarritasuna aterako die babes elektoral zabalarekin.

4.- Anlisi eta egokitze aldia: (89-90etik 92-94ra) Gazte mugimenduaren barruko krisi sentsazio hau handitu egingo da 89ko Argeleko elkarrizketen porrotaren ondoren. Bi urtez, 90. urtean, IV. kongresua egin zen. Jarraik justu kongresu hori baino lehen soldaduskaren inguruko iritzia aldatzen hasia zen eta kongresuak itzulpen zuzena izan zuen. Kongresu aurreko hiru urteko egoeraren azterketa egingo da, autokritika handi bat eginez egoera honetara heltzeko zeuden barne zein kanpo kausen gainean. Gazteriarengana heltzeko zailtasunak, antolakunde itxi eta sektarioaren sentsazioa, gazte errealitatearen urruntzea, freskotasun eza... IV. kongresu honetan abiatutako berrikuspen eta kritika prozesu honek gazte antolakundearen 92ko V. Kongresu famatuan izango du isla, zeinetan Gazte Antolakundearen diskurtso eta praktika berri eta eguneratu egiten den.

Errealitate soziala gaziki deituriko "berrindustrializazioaren" amaierak markatuko du, milaka kalerarekin. Gatazka politiko eta armatu Argeleko negoziaketan porrota eta Ezker Abertzalearen krisiarekin, Bidarteko atxiloketen ostean areagotu egiten da. Ezker Abertzalea jokoz kanpo geratuko da, prest ez zegoen testuinguru berri bati aurre egiteko.

90. HAMARKADA: 2. FASEA (1992-02)

1.- Indar metaketen aldia: (92tik 95 ra+/-). Fase hau lan estilo berri baten abiaraztearekin hasiko da, V kongresuan zehaztu zena. Gazte Antolakundearen dinamika eta ekimenei bizitasun eta freskotasun handiagoa eskaintzen zaie. Aldaketak eta emaitzak epe motzean nabaritu dira. Lehentasunezko borroka insumisioa ... izango dira, Euskal Herri osoan egituratzeko beharra, mugimendu izaera hartuko duen antolakundea. Borroka ezberdinetan indarrak metatuko ditu. **Adibide grafiko bezala, eta filosofia berriaren eredu bezala, lehen Gazte Topagunearen ospakizuna dugu 1994ean Etxarrin, 10.000 gazterekin.**

Errealitate soziala beste krisi ekonomiko txiki batek markatuko du. Gatazka politiko eta armatua, erakundearen berregituratzean kokatzen da, barne mailako jarduera bizi-bizian murgilduta dagoena, eta ez hainbeste ekintzetan. Ezker Abertzalea krisi eta gogoeta sakonean dago murgilduta, zeinetan gazte antolakundea, aire freskoa den, eta mugimenduarentzat dinamismoaren erreferentzia den. Ezker Abertzalea Nazio Eraikuntza estrategiarekin indartuta aterako da hurrengo urteetarako.

2.- Aurrerapen eta hedapen aldia: (95etik 00era +/-). Garai honetan, 96tik aurrerako Gazte Antolakunde eta Gazte Mugimenduen dinamikak hedapena da ezauzgarri nagusia. **Urte honetan ospatuko da gazte antolakundearen VI kongresua, aurretik zetorren lan estiloaren oinarriak egonkortzeaz gain, sakondu egiten da, lehentasun bezala gazteriaren bizi baldintzak kokatzeko (lana eta etxebizitza).** Jarraik bizi baldintzen egoeraren gaineko diskurtsoa erradikalizatu egingo du, erantzuleak seinalatuz. Horrela ETT-en itxierak edo etxebizitzaren okupazioak ugarituko dira... hau dena "zuen aberastasuna gure miseria" kanpaina ezagunarekin barnebidu zen, zerri kapitalista urkatuarekin lotutako bezala.

Beste behin Gazte Topaguneak erreferentzia bihurtuko dira (Zaldibia 96 eta Oiarzun 98) gazteriarentzat eta borroketzat. **96ean ere Ipar Euskal Herrian sortuko da Gazteriak gazte antolakundea, perspektiba nazionalean sakontzeko elkarlana hasten delarik.** Bestetik, gazte mugimenduak hedapena bizi du, gazte asanblada eta gaztetxeen biderkatze batekin Euskal Herri osoan zehar, belaunaldi berri bateko milaka gazte biltzen direlarik. Kontrainformazio proiektu gazteak ere sortzen dira, baita emakume gazteen talde ugari ere. Hedapen honen amaierarako bi erakusle argi aipatu ditzakegu. Lehenik, Jarrairen azken borroka eguna, 99ko martxoaren 24ean, zeinetan urteetako borroka fruituak ikus daitezkeen, baita 20 urteurrena ospatzeko **Gazte Abialdia.** Bestetik, **2000ko Topagunean Jarrai eta Gazteriak euren buruak desagerrarazteko erabakia erakutsiko dute, prozesu eratzaila bat aurrera eramateko erabakiarekin; lehen gazte antolakunde nazionala sortzeko.**

Egoera soziala gazte mailan 1994an sortu ziren ETTak, zabor kontratuak eta prekarietatearen sorrerak markatuko dute. Gatazka politiko armatua ere bere gordinan dago. 1995ean Alternatiba Demokratikoa aterako da, gatazka gainditzeko eskema berri bat proposatuz. Bahiketa eta hauen askatasun eskaerak fase berri bat zabalduko dute, grafikoki islatuko dena lazo urdina eta Euskal Herria Askatu!

dinamikaren arteko konfrontazioan. 97an HBko mahai nazionala espetxeratuko da, uztailean Miguel Anjel Blanco hilko da. 98an 18/98 sumarioa hasiko da, martxoan lehen atxilotetak, uztailean Egin, Egin irratia eta Ardi Beltzaren itxiera. Irailean Lizarra-Garazi akordioa sinatu egingo da eta ETAK 99an amaituko den su-etena abiaraziko du. 92-94an egindako autokritikaren emaitzak jasoko ditu Ezker Abertzaleak. Gernikako estatutua hiltzat emango da eta autodeterminazio eskubidearen aldeko dinamika handituko da.

3.- Gelditze edo desajuste aldia: (ootik oiera +/-). Aro honetan, gazte dinamika-ren gelditze bat emango da. Itxuraz oso egoera onean dago, 4000 gaztek parte hartzen dute Haikaren prozesu eratzailan. **Baina prozesuaren ostean, esperientzia zeukaten ehunka gaztek militantzeari utzi zioten belaunaldi berriak borrokara batu zirelako. Honek, esperientzia gutxiko militantzia bat uzten zuen eta egitura eta funtzionamendu mota berri bat, esperimentatzea eskatzen zuena.** Beste faktore batek ondorio larriak ekarriko zituen: 99 amaieran diseinuzko droga berriak agertu ziren gazteria independentistaren guneeetan, eta kontsumoaren ondorioak masiboki nabaritzen hasi ziren. Porro, tripi eta batez ere speed eta kokainaren kontsumo masiboek gazteentzat erreferenteak ziren kide ugariren desmobilizazioa ekarri zuten. Droga hauen erabilera poliziala erakutsi zen eta trapitxeoa desmobilizazio eta kolaborazio tresna gisa. Barne mailako erabaki gogorrek hartu behar izan ziren, hainbat kidek militantzia utzi behar izan zutelarik. Erabaki hauek gazte mugimendutik aldendu zuten Gazte Antolakundea.

Noski, beste faktore ezinbesteko bat da geldialdia ulertzeko: **Haikaren ilegalizazioa** eta 2001ean zuzendaritzako zotik gora kideren atxilotetak. Militantzia berria guztiz baldintzatu zen arren, lanean jarraituko da eta **Segi sortuko** da. Hau ere 2001 amaieran ilegalizatu egingo dute eta beste hainbeste kide atxilotu. Honek guztiak gazte dinamika gutxitu eta ia bakarrik erantzun dinamikara murriztuko da praktika.

Errealitate soziala 2001eko 11S ondorengo terrorismoaren kontrako gudak markatuko du. Gatazka politikoa armatua berriro gogortu egingo da treguaren amaieraren ostean. Ezker Abertzalea joko kanpo geldituko da Lizarra-Garazi ostean eta moldatzeko ezintasun hori 2001eko hauteskundeetan nabarituko da. "Batasuna" prozesua jarriko da martxan, alderdi politiko nazional berria sortzeko.

4.- Anlisi eta egokitze aldia: (oietik ozra +/-) Gazte antolakundean eta bere dinamikan emandako berregituraketak markatuko dute garai hau. Errepresio gogorrek eragindako funtzionamendu berrietara egokitu behar da, segurtasun neurriak handituz, lokal eta egoitzarik gabe, antolakunde "ilegal" bezala lan eginez. 2002 osoan zehar funtzionamendu berriaren oinarriak jarriko dira. Golpe errepresiboari erantzuteko lanari ofentsiba politikoa lehenesteko beharra agerian geratuko da. Salbuespen egoerari aurre egitean gazteriarekiko lan erakargarri eta freskoa galdu dela uste da. 2002ko Elorrioko topagunea psikologikoki oxigenozko globo bat da, momentu errepresibo gogorren.

00. HAMARKADA: 3. FASEA (2002-12)

1.- Indar metaketen aldia: (2002tik 05arte +/-). Garai honetan lan ildo berriak martxan jarriko dira, egituran aldaketak emango dira (koordinazio eta dinamizazioa). Herriek lehentasun handiagoa izateko egituraren inbertsioak egingo dira. Eta gazte proiektu ezberdinak jarriko dira martxan. Planteamendu hauek Segiren lehen kongresuan isla izango dute 2003an, salto kualitatibo bat emanez, Gazte Estrategian sakonduz eta GAZTE BOTEREaren sorrerarako tresnekin.

“Galdu zen” gazte perspektiba berreskuratzen da honela, “Gaztea naiz eta harro nago” bezalako kanpaina batean ikusten den bezala. 2003ko Gazte Martxa eta Itsasondoko Topaguneak berriz ere gazte borroken bozgorailu izateko balioko dute. Ilegalizazioaren eremuan espazioak irabaziko dira eta Haikan militatzen hasitako gazteek esperientzia nahikoa izango dute jada lan kualitatiboago bat egin ahal izateko herri eta auzoetan. Gazte asanbladetan, proiektu komunikatiboetan eta emakume gazteen taldeetan lana biderkatu egingo da. Gaztesarea eta Xirika proiektu komunikatiboak sortuko dira.

2.- Aurrerapen eta hedapen aldia: (2005etik 07ra +/-). Garai honetan gazte mugimenduaren eta gazte dinamikaren hedapen bat emango da. Aurreko urteekin alderatuta aurrerapen handia egongo da, 2002ko berkokatsetik fruituak jasoko dira.

2005ean gazte antolakundearen kontrako epaiketaren harira “Gazte eta errebelde” lemapean kanpaina zabala egingo da Euskal Herri osoan zehar. 2006tik aurrera Independentzaiaren aldeko kanpaina zabalak abiatuko dira, eremu eta ikuspegi ezberdinetatik, talde eta mugimendu ezberdinekin elkarlanean. Etxarriko 06ko Topaguneak eta ondoren garatutako dinamikak koiunturan eragitea lortu zuten. Independentziaren kanpaina 07ko Gazte Martxaraino luzatuko da.

Gazte mugimenduari dagokionean fruituak ere ikusiko dira. Gazte asanbladek dinamismo eta indarrarekin okupazio eta dinamika erreala abiatuko dituzte. 2004ko amaieran Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Koordinadora sortuko da. 2003ko kongresuan hartutako ildoaren erakusle argiena 2005eko Gazte Mugil! topaketak izango dira, lehen aldiz Euskal Herriko gazte mugimendua batuko dena, eremu ezberdinen gainean eztabaidatzeko.

Eztabaida eremu ugari irekiak geldituko dira. 2005eko maiatzean Gaztetxeen Koordinadorak I. Okupazio Kongresua ospatu zuen. Urrian MusikHerria herri diskoetxea sortuko da 40 musika talderen artean. Urrian ere lehen Gaztetxe Eguna ospatuko da. Azaroan Euskal Herriko Gazte Kontseilua sortuko da. 2006ean GazteHitzarmena sortuko da, euskararen aldeko lanabesa. 2006ean I. Komunikazio Gazte Topaketak ospatuko dira, 20 gazte proiektu komunikatibo batuz. 2006ko maiatzean Gaztetxe Martxa ospatuko da Mauletik Iruñeara, gaztetxe guztietatik pasatuz.

Gatazka politiko armatuari dagokion eremuan, ETaren su-etena eta Loiolako eta Ginebrako elkarrizketak gertatuko dira. Tentsio garai ezberdinak tartean, larriena Iñaki de Juana euskal preso politikoaren gose greba mugagabea aipatu daiteke,

baita Jarrai-Haika-Segiren kontrako sententzia.

3.- Gelditze edo desajuste aldia: (2007tik -08ra +/-). Garai honetan bi faktore nagusi aipatu beharko genituzke, biak ilegalizazioaren ondorio: lehena Gazte Antolakundea ia bakarrik erantzunera mugatzen zela, lan estrategikoa alde batera utziz. Bestea, eta garrantzitsuena, errepresioa bera izan zen, Gazte Antolakundearen kontrako hamarnaka sarekada burutuko baitira zoodik gora gazte atxilotu, torturatu eta espetxeratuz. Gainerako kideak ia-ia klandestinitate egoera batera bultzatuak izango dira, beldurraren ondorioz egoera psikologiko gogorrera eramanez.

Hala ere, hainbat dinamika martxan jarriko dira, hala nola No Future kanpaina eza-guna, edota Independentziaren aldekoa. Bologna, AHT eta Etxebizitzaren gaineko borroketan aurrera pausuak emango dira, baina esan bezala epe oso laburrean kokaturik. Laudioko gazte martxa eta Lezoko Topagunea arnasmune garrantzitsuak izango dira ere, baita gazte borrokari esker 2007ko urriaren 12an Donostian falangisten manifestazioa ekidin izana. Bestetik 2009ra begira "ekin dezagun batera!" topaketak antolatzen hasten dira, gazte mugimenduko espresio anitzekin elkarlana garatuz.

ETAren su-etenaren amaierak hasiera batean, ez zituen Ezker Abertzalearen baitan koste gehiegi ekarri, epe laburrean borrokaren bidez negoziaketetara itzuliko zela uste izan baitzen. Ordea, tartean errepresioaren ondorioz, Ezker Abertzalea bakarrik gelditzen ari zela hausnartu zen eta behar-beharrezko eztabaida estrategiko bat zabaltzen hasiko da.

4.- Analisi eta egokitze aldia: (09tik -2013). Krisia detektatuta, hausnarketari ekiten zaio eta arazo nagusiak identifikatu egiten dira: militantziaren robotizazioa, dirigismoa, ghattizazioa, borroka taktikoei lehentasuna ematea, epe luzerako perspektibaren galera, gazte mugimendua ito izana... Eztabaida honetan zeharo murgilduta egonik, bestelako arazo bat gehituko da: errepresioak ezinezko egingo du eztabaidaren ondorioei ganoraz eustea. **Marasma prozesua abiatuko da gazte mugimendua indartzeko, filosofia eta balore berriak garatu asmoz.** Ordea, geroz eta kide gutxiago daude Gazte Antolakundean, ia denek kartzelan amaituko dutela asumituz. Egoera psikologikoa oso kritikoa da eta 2012an Segik bere burua desegingo du. Tresna bezala agortua dagoela adieraziko du, nahiz eta gazteria Gazte Mugimenduan antolatzeraz eta borrokan jarraitzeraz deitu. Lehen aldiz 1979tik Ezker Abertzaleko gazte antolakunderik gabe egongo da.

Bi krisiren batura eman da azken finean, alde batetik Ezker Abertzalea bere osotasunean pairatzen ari dena (errepresioaren ondoriozko isolamendu politikoa, tresna bezala mugetara iristea, berregokitzeko zailtasun handiak, aldaketa estrategiko baten beharra eta borroka-molde berrien beharra indarrak askatzera bidean) eta Gazte Mugimenduan pairatzen dena (Segiko militanteen aurkako jazarpena, gazte mugimenduaren aurkako errepresio bortitza, krisia aitzaki zapalkuntzen areagotzea, gazte militante belaualdien arteko haustura).

Bigarren eztabaida berri bat hasiko da orduan, 2012ko ikasturtearen hasieran,

gazte mugimendu ezberdinetatik etorritako hainbat gaztek "Gazte ZukGua, norbanakotik kolektibora" prozesua jarri zuten martxan, orotara 3000 baino gazte gehiagok parte hartuko zuten prozesu eratzailan. 2013ko martxoaren lehenean Lizarran, Ernai Ezker Abertzaleko gazte antolakundea sortuko da. Berritasun nagusiak feminismoa helburu estrategikoen barruan sartzea izango da, edota gazte mugimenduarekin eduki beharreko papera birdefinitzea.

Bestetik, Ezker Abertzalearen eztabaida estrategikoa izango da 08-10era bitarte, Zutik Euskal Herria dokumentuari bide emango diona. Ilegalizazio egoerak eragindako zailtasunek baldintzatuko dute prozesua, baina oztopoak-oztopo, beharrezkoak ziren aldaketak planteatuko dira eztabaida bitartez. Estrategia aldaketa honen, gehi Ezker Abertzaleak jasan duen errepresioak, krisi egoera batean sartuko du. Izan ere 2011ean Indar metaketaren bidez hauteskundeetan inoizko emaitzarik hoberenak lortu ondotik, eta urrian ETAK behin betiko borroka armatua utzi ondoren, 2012an ez zen inolako urratsik eman eta blokeoa nagusituko da orduztik gatazkaren konponbidearen alorrean. Bake Prozesua barne zein kanpo faktore ezberdinek oztopatuko dute, interes zehatzei jarraituz, Madril eta Paris eroso daudelarik egoera honetan.

2010. HAMARKADATIK AURRERA 4. FASEA: (13- ?)

1. Indar metaketa aldia: (2013-2015 +/-). ZukGua prozesuaren ostean, Ernairen jaiotzak ilusioa piztu zuen gazte mugimendu osoan, lehen aldia baitzen belaunaldi oso batentzat gazte antolakunde legal bat ezagutzen zutena, eta horrek aukera izugarriak eskainiko ditu. Gainontzeko prozesuetan bezala, esperientziarik gabeko belaunaldi bat hasiko da militatzen, baina hori izugarritzko aukera izango da, borroka eta diskurtso berriak artikulatzeko. Borroka-molde berriak garatzeko beharra mahai gainean jartzen da, alor horretan sormena bultzatuz eta iturri eta esperientzia anitzetan arakatuz. Iraganeko eta egungo ereduak ere bilatuko dira gazte perspektibatik gazte mugimenduaren indarrean eragiteko. Borroka ezberdin ugari abiaraziko dira: Burujabetzaren ideia sozializatuz, prekarietatearen kontrako borrokan, neska gazteen taldeetan eta Denak Ala Inor Ez, zein Herri Harresien gisako dinamiketan gazte borroka betetako funtzioa ezinbestekoa izan da.

Halere, konfrontazio armatuaren amaierak ekarri zituen ilusioak zapuztuak geratuko dira prozesuaren kontrako erasoek dirauten bitartean (Herrira, abokatuak, EPPK, armagabetzea...). **Egoera honen aurrean, Ezker Abertzaleak aldaketa estrategikoa baliatuz abiatutako indar metaketa bere mugetara iristen ari denaren sentsazioa hedatuko da, estrategia berriaren berregokitzapena beharrezkoa dela azaleratuz. Abian eztabaida prozesuaren ondorioz, Zutik Euskal Herria ebazpenaren gaurkotzea eta berregokitzea ematen da,** Ezker Abertzaleak (bere osotasunean) herria aktibatzen eta antolatzen estrategiaren ezaugarriak eztabaidatu eta erabakitzen dira, euskal errepublika sozialista eta feminista helburu duen proiektua elikatzen eta indartzeko bideak argituz. Egun, Abian prozesua amaitu gabe dagoela esan dezakegu, erabakitako pausu garrantzitsuenetako bat emateko baitago. Sorturen beharrezko birfundazioa, hain zuzen.

Gazte Mugimenduari dagokionez, Gazte Estrategiari jarraiki saretze eta alternatiba eraikitze fasean emango dira une hauek, egokitzapen eztabaida prozesuek lan-keta hau gehiegi baldintzatu gabe. Horren isla izango dira "Eraikuntza lanetan ari gara" dinamika luzearen ostean garatutako Gazteriaki topaketa arrakastatsuak eta bertatik ateratako proiektu eta taldeak. Gaztetxe eta Gazte Asanbladek ere hiru topaketa burutuko dituzte garai honetan, gutxinaka gazte botererearen eremu berrietara jo behar dela ondorioztatuz. Ikasle borrokari dagokionean ere antolakuntza urrats ugari ematen dira: Eskola Kolektiboak, Herri Unibertsitateak eta greba orokor arrakastatsuak horren lekuko.

2. Aurrerapen edo hedapen aldia: 2017-?. Aipaturiko gazte mugimenduen espresioek lehen fase bat amaitu dutela esan daiteke, berdefinizio eta berraktibazio fasea. Orain ordea, hedapena burura eramatea dagokigu guri. Kongresu prozesuan garaturiko jakintza eta gaitasun guztiei bide eman behar diegu hemendik aurrera, Gazte Iraultzak jarrai dezan Euskal Herrian. Huts egingo bagenu, 2. fase hau behar baino motzagoa izango litzateke, eta hau onartezina da. Beraz egindako bideari jarraipena ematen asmatzea dagokigu orain.

ONDORIO TXIKI BATZUK ATERATZE ALDERA

Beharrezkoa da gai honen gainean ikerketa zorrotzago eta garatuago bat egitea, faktore guztiotan sakonduko duena, beharrezko ondorioak jasotzeko. Baina, ikusitakoarekin ondorio txiki batzuk gutxienez atera ditzakegulakoan gaude.

- Badirudi 12 urtero +/- itsas gora-itsasbehera fase bat ematen dela, azken 35 urteetan ikusi bezala. Orain laugarren fasean geundeke, hedatze fasean.

- Baina **denboretan antzekotasun bat eman izanak, ez du esan nahi horrela izan behar denik, edo izango denik etorkizunean.** Faseetan eragiten duten barne eta kanpo faktore ugari daude: errepresioa, barne mailako eztabaida/desadostasunak, planteamendu/analisi ezegokiak, testuinguru internazionala...

- Gainera, gazte errealitatearen eta antolakundearen ezaugarriak eta hauen itsasgora eta itsasbeherak, Euskal Herriko Askapen Prozesuarekin guztiz batera ematen dira, batzuetan gazte borrokak berau hauspotzen du, besteetan alderantziz suerta daitezkeen arren. Itsasgorak moteldu edo azkartu daitezke prozesuaren beraren logikaren arabera.

- Ildo honetatik, azken 35 urteetan, Askapen Prozesuak ere, bere fase propioak izan ditu. Sakondu ezin dugun arren, gatazkaren konponbiderako lau mugarri aipatu daitezke: Argel 89, Lizarra-Garazi 98, Anoeta 2006 eta Borroka Armatuaren amaiera 2011. Azkenekoan ezik, gazte mugimenduaren hedapen fasean bat egiten dute data hauek. Harreman zuzena dute gazte mugimenduan eragiteko dugun gaitasunak, eta Ezker Abertzaleak inizatiba politikoa hartzeko duenean. Askapen Prozesuaren azken fase hau oso ezberdina izaten ari da, fase historiko zeharo berri bat ireki duelako eta oraindik ere ez garelako gai horrek suposatutuen aldaketa objektibo eta subjektibo guztiak ulertzeko. Horregatik, gazte borrokaren azken

ziklo honetako epeak eta ezaugarritzeak modu ezberdinean garatzen ari dela sumatu dezakegu.

- Ziklo hauek, normalean Askapen Prozesuaren parte izanik harreman zuzena dute, baina aldi berean mundu mailan ematen diren prozesuekin zerikusia dute. Egia izanik ere, Euskal Herrian zentzu honetan, errealitate propioak sortzeko gai izan gara, askotan beste herrietan ematen ziren prozesuekin desberdinduz. Ezin dugu uharte bat izango bagina bezala ikusi hemen gertatzen dena. Dena dago elkar harremanean.

- Gainera, gazte zikloek, logika propio eta espezifiko bati erantzuten diote. Hau da, faktore mundial, erregional, eta nazionalak kontuan izanik, gure zikloek logika propio bat dute, ezagutu beharrekoa ere. Logika hau ulertuta, errazagoa da besteak ulertzea.

-Gazte dinamikan ematen diren militante belaunaldien batuketa eta desagertze azkarrak gazte zikloetan ematen den ezaugarri berezko bat da, kontuan eduki beharrekoa, gure zikloa ulertzeko. Jendarteko beste sektore batzuekin alderatuz, gazte militantzia, bere ezaugarri propioengatik, une oro aldatzen den militantzia mota bat da. Antolakundeetan belaunaldi berrien sartu-irtenak klabeak dira. Badago ikaskuntza prozesu bat, ikasitakoa praktikan jartzen dena eta ikasitakoa erakusten dena. Hala ere, ez dira beti etapa hauek ematen militantzian. Baina hein batean, baliteke gazte itsasgorak ziklo hauengatik zeharo baldintzatuta egotea. Gazte Antolakundetik belaunaldi ezberdinak pasa direnez, ez da harrizkoa gazte mugimenduaren hedapen uneak belaunaldi ezberdinek bat egitean eman izana. Honekin lotuta, *desajuste* uneak maiz, errelebo egokiak eman ez izanagatik gertatu izan direla. Ondorio ezberdin ugari atera ditzakegu hemendik.

- Gainera, gazte militantzian beste antolakunde askotan gertatzen dena bereziki ematen da. Aldiro mahai gainean ustez "gainditutako" eztabaidak jartzen dira, behin eta berriz gazte dinamika gaindituz. Noski ez direla eztabaida berdinak baina, egoera berrietan ematen dira eta sarri kualitatiboki beste maila batean. Baina hau normala dela jakinda ere, esperientzien errelebo txarrak belaunaldi berriei aurreratzeko zailtasunak gehitzen dizkie.

- Azken 35 urteotan eztabaida eta egoera ugari eman dira eta Gazte Antolakundeetan oinarritzko elementuak horren isla dira. Elementu hauek bere esentzia osatzen dute eta armonia osoz garatu behar dira antolakundeak ondo funtziona dezan. Baten batek funtzionatzeari uzten badio *desajusteak* sortzen dira eta jardun politikoan desbideraketak gertatzen dira

- Gazte logikatik at geratzen diren elementu ugari hartzen dute parte faseen garapenetan. Honela, demografiatik hasita, krisi ekonomikoetaraino ehunka dira gazte borrokan eragiten duten elementuak. Ordea, beste asko ez dira gutaz gain dauden baldintza objektiboak; gure baitan diren baldintza subjektiboak baizik. Hau da, sarri, gure esku dago faseei aurre hartzea, batzuk gehiago iraun dezaten, beste batzuk gutxiago. Aurre hartzen saiatu behar gara *desajuste* faseei, analisi zo-

rrotzak eginez, eta hedapen faseetan indarra eginez, apustu arriskatuak eginez. Honela olatuek aurrera egin dezakete, hondartzek, moilek atzera egitea behartu gabe. Iraultza posible izango da, desajusteek atzera egitea behartzen ez gaituzte-nean soilik.

3.

AURRERA BEGIRA

NAZIO ERAIKUNTZA HERRI BOTEREA DA

“Mundua aldatzeko, ez da derrigorrez mundu osoa aldatu behar. Nahikoa da puntu txiki bat, eta mundua aldatzea posible dela ikusiko da puntu horretan. Baina zerbait aldatu behar da. Euskaldunok esate baterako zerbait alda dezakegu. Aldatu nahi badugu, aldatu behar dugu. Dena den bezala ezinbestekoa dela azaltzen duten antzerki zahar horien kontra.”

Joseba Sarrionandia

HERRI BOTERERANTZ

Boterea, auzi arazotsua da bereziki. Ikuspegi marxista batetik boterea **“kontra-koen batasunean ematen den harreman sozial asimetriko”** gisa definituko dugu. Egungo jendarte kapitalistetan, jabetzaren inguruan ematen da boterea, **bitarteko material eta sinbolikoen jabe direnek, jabe ez direnak dituzte eta menpeko.**

Botere esplotatzailea ordea ezin dugu batzuek daukaten zerbait gisa irudikatu soilik. Botereak hamaika aldaera ditu, eta gizon zuriak edo BBVAHK (Blanco Burgués Varón Adulto Heterosexual...) era berezian erabil dezakeen arren, estatuaren boterea edo merkatu librearena, argi eduki behar dugu **jendarteko egitura oro botere harreman asimetrikoengatik dagoela gurutzatua.** Eta beraz, ezin dugu boterea duten eta ez dutenen arteko dikotomia soilik eraiki. Jendarteko katebegi guztien artean gurutzatzen da boterea, eta ideia hau mantentzea garrantzitsua da, zapalkuntza oro ikusi eta ikustarazteko.

Boterea, harremanen katea da beraz. Baina ba al dago botere kapitalistaz hitz egiterik? Noski baietz, **kapitalismoak baditu bere berezko botere sistemak, batzuk egiturazkoagoak, besteak moldagarriagoak.** Ezin dugu ere, kapitalismoaren boterea, estatuaren botere hertsatzailerara soilik mugatu, ez eta soilik ideologikora. Ororen nahasketa, edo hobe, biderketa da kapitalismoaren boterea, beste zapalkuntza batzuetatik elikatzen da eta: patriarkatua, arrazismoa... Telebistatik, espetxeetara, eroetxeetatik kontsumo ereductara, kapitalismoaren botereaz hitz egin dezakegu. Zer esanik ez, eremu pribatu kontsideratzen dugun horietan: bikotekideen artekoa, gurasoena...

Hala ere, kapitalismoaren boterea, ekoizpen bitartekoen jabetza pribatuan datza: behar material eta sinbolikoak sortzen dituen jabetza hain zuzen. **Beste botere harreman asimetriko guztiak hau mantentzeko edo zabaltzeko eta garatzeko erabiltzen dira.** Ekoizpen bitartekoen jabetzak ez du esan nahi soilik fabrikena: eremu bakoitzean ekoizten denaren araberako jabetza pribatuaz ari gara. Adibidez: koadrilak egitura sozial gisa zer ekoizten du? Lagunen arteko planak egitea, buen rolloa, maitasuna... ba al dago plan horiek monopolizatu edo beti berak nahi duena egiten den kiderik (bat baino gehiago izan arren)? Kasu zehatz honetan ekoizpen bitartekoen jabetza pribatua kide hauek izango dute.

Eta horren aurrean zer da herri boterea? Herri boterea bezala ulertzen dugu, botere kapitalisten zein patriarkarren aurrean **herri antolatuak lortutako (edo sortuta-**

ko) botere espazio berria. Era anitzekoak izan daitezke, baina funtsean bestelako eredu kontrajarri batez ari gara, jabetza sozial eta parte hartzaileaz, eta harreman eredu horizontalez. **Herri Boterea da gure demokrazia erdua, demokrazia feminista, euskaldun eta herritarra.**

Herri boterea eraikitzea, ez da gauetik egunera egin daitekeen zerbait, antolakuntza eta borroka ugari eskatzen du garaipen bakoitzak. Besteak beste, herri botereak kide guztien (eta bakoitzaren) parte hartze eta ahalduntzea exijitzen duelako, eta hori, ohituak gauden kapitalismoaren zein patriarkatuaren parte hartze eremuan (gehiengo diktadura eta eztabaida eza, gizonen protagonismoa, helduzentrismoa...), zaila da oso.

Lehenik eta behin antolatu beharra dago. Herri mugimenduek antolaturik, euren helburu politikoak lortu baino, eraikitzea ausartzen direnean hasten da herri boterearen eraikuntza. Helburuak lortu aurretik, herri mugimenduak kontrabotere batean eratzen dira (sindikatuetatik bizilagun elkarteetara) eta bertan eramaten den dinamikak botere bikoitza egoerak sor ditzake: herri botere bihur daitezkeenak.

Kontrabotereaz ari garenean, erresistentzia antolatu minimo batez ari gara, helburu zehatz bat duena, botere hegemonikoari aurre egingo diona. Kontrabotere hau koordinatzen bada, beste mugimendu zabalagoekin, eta abar, eta hala ere, bere koherentzia eta helburuak mantentzen baditu, botere bikoitz egoerak sor ditzake, botere zapaltzailearen aurrean parez pare jar daitekeena, eta berau garaitu.

Herri Boterearen eraikuntza beraz, estrategia eta borroka politiko prozesu luze eta gogorra da. Herri antolatuaren garaipenaz hitz egiten ari gara eta azkenean, burujabetza prozesuaz. "Lau A-en teoriak" hitz egin ohi da: **autodeterminazioa - antolakuntza - autogestioa - autodefentsa.** Hau litzateke herri boterea artikulatzeko prozesu baten urratsak:

- 1) Lehenik eta behin komunitatea definitu. Komunitate politikoak, era eta auzi ezberdinen bitartez antolatzen dira. Ordezkarriak izan ahal izateko, komunitatearen kohesioa beharrezkoa da, prozesu oso bat behar duelarik. Edozein komunitatek, problematika beraren kontzientzia garatu behar du, elkarrekin antolatu eta erabakiak hartzeko.
- 2) Komunitatea politikoki gaitu/ahaldundu. Komunitate batek beharrezko gaitasun eta konfiantza maila lortu behar du, bere etorkizunaren gaineko erabaki kolektiboak hartu ahal izateko. Horretarako, autogestio maila minimo bat beharrezkoa da, bai eta kontzientzia politiko-kolektibo maila handi bat (lehen urratsa horregatik da ezinbestekoa).
- 3) Erresilientzia prozesua abiatu. Erresistentzia aurre egitea bada, erresilientziak altxatzeari egiten dio erreferentzia. Sendatze kolektiboa, da beraz, arazoari/zapalkuntzari irtenbide kolektiboa planteatzeko prozesua. Honen baitan, beharrezkoa izanez gero, erasoei aurre egiteko mekanismoak sortu eta garatu behar dira. Erresilientzia eta erresistentzia beraz.

EGOERA POLITIKO BERRIA. NAZIO ERAIKUNTZA, BAGOAZ!

Nazio Eraikuntza orain arte ulertzen genuenarekin (94ko teorizazioa) zerbait garatu beharra dagoela uste dugu. **Lehen genuen logikagatik, eraikuntza egunez egun bilatzen genuen arren, gure norabidea orduko markoaren agorpena erakustea zen.** Hau da: goazen eraikitza, eta oztopo eta debekuak iristen direnean goazen ahalik eta jende gehien edukitzera tope horren kontra egiteko.

Gure eztabaidetan *erakustea, ikus araztea, kontura araztea...* Bezalako hitzek argi erakusten dute zeintzuk diren estrategia honetan, ditugun ideiak: markoaren agorpena hatzarekin seinalatzen dugu, gorputzekin horren kontra jo beharrean. **Talka irudikatzen dugu eta ez sortu.**

Noski, hau ez dela maila guztietan ematen den logika orokorra, proiektu alternatiboak ere egin izan ditugu Nazio Eraikuntza estrategiaren barruan (Euskal Curriculum, Udalbiltza, lehen aipaturiko gazte esperientziak...). Ordea, gure lehentasuna herriari ikus araztea denez, ez dugu herriarekin kontaktzen, eta orokorrean militantzia ez dugu eraikuntza klabeetan kokatzen, borroka ideologikoko klabeetan baizik.

Honek ez luke txarra izan behar baldin eta eraikuntza albo batera uzteko joesa ekarriko ez balu. Horrela herrietako militantzia jaiak edo soziokultura bezalako problematikez gain, ez da alternatibak sortzeko gai. Antolatzeko bai. Hezkuntzan, lanaren inguruan, edo beste hamaika problematiketan borroka txikiak pizten dira, eskari lokalak garatzen direlarik, **baina ia inoiz ez dute alternatibak sortzeko borkaziorik, eta beraz ez da proiektuen talka ematen.**

Gure strategiaren ardatza ordea, nazio eraikuntzaren bitartez benetako kontratobere bat sortzea izan behar da, topeen gaintik prozesu eratzaile nazional bat emate aldera. Ildo horretatik benetako alternatiba bihurtzeko bokazioa duten proiektuak sortu behar ditugu, debekurik edo erasorik balego benetako talka ekarriko dutenak. Baina hau ez da helburua izango, gaintitu beharreko erronka baizik.

Gure logika orokorra "bagoaz" izan behar du. **De facto egitura ekonomiko eta politiko alternatiboak sortzea.**

Noski, hasieran ezingo dugula ekoizpena antolatu, ez eta egitura estatalak garatu, baina hasi gaitzke kooperatiben sareen bitartez, kontsumo sare alternatiboak garatzen, eta aberastasunaren beste distribuzio bat garatzen, baita herri boterea instituzio ezberdinen bitartez antolatzen, komunitateei garrantzia handiagoa ematen. De facto independentzia materialerako bitartekoak sortzen.

Adibideen beharra azaltzen zaigu askotan, ez baitakigu nondik hasi. Nahikoa da gure barruan dauden nahiei forma ematen joatea, proiektuak ez baitira bakarrik eraikiko. Ekin behar da ez besterik, eta joango gara asmatzen zein forma hartuko duten proiektuok: kooperatiba sozial edo komunitarioak, sareak, plataformak, kontsumo taldeak edo zerrendak, balio forma gaintituko duten komunalak... Adi-

bide faltan ezkutatzen gara maiz, baina galdetu baino ez dugu egin behar, erantzunak guk geuk asmatuz azken finean.

EGOERA SOZIOEKONOMIKO BERRIA

Aurreko planteamendutik aldatu den beste elementu klabea krisi finantzariotik eratorritako prekarietate egoera masiboa da. Soldatapeko lana beste garai bateko mitoa bihurtu da egun gazteontzat, baina horren aurrean antolatu eta alternatibak eskaini beharrean, lagunekin kexatzen ibili edo atzerrira migratzera beste aukerarik ez dugula dirudi. Aukerarik hoberenean jornala murriztu eta lan-baldintza guztiz penagarriak onartzen ditugu.

Egoerak hobera ez duela egingo ikusita, gazteon bizi-baldintzak hobetzeko planteamendu bat egin beharrean gaude. Aurretik aipatu dugu baina soziokulturari lotutako problematikekin ezin ditugu gure behar urgenteak asetu, eta beraz, ez gara kapitalismoarekiko dependentziaz askatzeko gai. Kapitalarekiko dependentzia mantentzen jarraitzen badugu, prekarietate egoera orokortu batean, pobrezia kondenuatuak geratuko gara, eta gure ingurunea eraldatzeko inolako gaitasunik ez dugu edukiko. **Kapitalarekiko dependentzia, batetik, lan prekarioen bidez ematen da.** Existentzia prekarioak sortuz (lan baldintza kaxkarrak, epe motzeko kontratuak, esplotazioa...) **eta bestetik, orokorrean langile guztiok duguna, dirua eta balio formekiko dependentzia beste edozein merkantzia lortzeko** (lan esklabua da orduan, erabat enajenatua).

Bi dependentzia mota horietaz askatzen joango garen eredia jarri behar dugu martxan; **ekonomia sozial eta eraldatzailearen oinarriarekin lan baldintza duinak sortuz**, ikasleriari bide emango diogu gure lana burujabe bihurtuz. Ekoizpena, distribuzioa eta kontsumoa, bide eraldatzaile eta ahal den buruaskien egitea da gure asmoa. **Aldi berean, diru eta merkantziarik gabeko espazioak sortzen joan behar gara**, kapitalismoaren erroak suntsituz ahalik eta leku gehienetan.

NAZIO ERAIKUNTZAREN IZAERA. GAZTE EKARPENA

Nazio eraikuntza estrategian gazteok propioki egin beharreko egitekoa zein den kokatu beharrean gaude. Baina lehenik eta behin, ezin dugu ekarpenaz hitz egin gure borroka ariko ez bagina bezala. **“Ekarpen” hitzarekin badirudi, badagoe-la estrategia bat zentrala dena, hegemoniko eta inportantea eta guk ekarpena egiten diogula horri. Guk gure gazte estrategia propioa dugu, eta gure egiteko propioa, ez da ekarpena bat.**

Hau esanda, gure berezitasun propioekin, **gazte estrategiak eskatzen dituen erritmo eta lehentasunekin jardun behar dugu Nazio Eraikuntzaren estrategian.** Herri Boterearen eraikuntzaz hitz egin badugu orain arte, Gazte Boterearen eraikuntzaz hitz egitea falta zaigu.

Gazte Boterea da, gure bizitza ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalaren gaineko erabakiak hartu eta bete ahal izateko gaitasuna izatea. Ezin dugu hala ere,

%100eko autonomiarekin irudikatu hau, baizik eta arloka, eremu ezberdinetan ematen dena: hizkuntzaren erabilera espazio komun batean, eraso sexistarik gabeko gune bat, prekarietarek gabekoa... Honek etika iraultzaile berri baten arabera jardutea eskatzen digu; **euskal gazteok ez dugu eskatuko, hartu eta guk geuk egingo dugu.**

Etika ez da estrategiarekin nahastu behar. Boterearen eraikuntzaren eta politika egitearen etika, noski, bateragarriak direla beste gisetako mobilizazioarekin, esku-bideen defentsarekin, lan-lege erreformekin...

Gazte Boterearen eraikuntzarako hiru ardatz eduki behar ditu kontuan ezinbestean edozein gazte estrategiak: boterea, jabetza eta desirak. Hiru hauek, maila ezberdinean aipatzen joan gara testu osoan zehar, eta ez gara errepikatuko. Hirurak presente eduki behar direla nabarmendu nahi dugu orain, besterik ez (irakurketa zehatzago baterako ikus Iñaki Gil de San Vicenteren Gazte Boterea testua).

Lehen aipaturiko mailaketaren arabera, **gazte kontrabotere bat deituko genioke edozein garaipen txikiri, nahiz eta hau iragankorra izan.** Gaztetxe edo lokal baten berreskurapena, gazte txosna, egitarau bat osatzea, ikasle eskubideen berme bat... horiek denak kontrabotere adibideak izango dira. **Ez dute sistemaren erroak astintzen, eta ez dute gure bizitzak autonomoki garatzeko bermerik ematen, baina heldu botereari lapurtutako garaipen txikiak dira.** Gainera borrokaren hasiera zentzu honetan baino ezin da eman, eta hurrengo urratsak emateko balioko du.

Aipatu, **garaipenak egonkortzean botere bikoitz egoerak sortzen dira,** zeinetan heldu botereak oso zaila duen hauek suntsitzea, eta aurrez aurre begiratu behar dion.

Amaitzeko esan nahi dugu **lehen aipaturiko lau A-ren teoriak erabat lotutak daudela Gazte Boterearen eraikuntzarekin: Autodeterminazioa, Autoantolakuntza, Autogestioa eta Autodefentsa.** Autodeterminazioa da oinarria, gure bizitzaren gaineko erabakia hartzea baita helburua. Baina ez erabakia zentzu burgesean, erabakia hartu eta egikaritzea biak batera ematen direla ulertzen dugu. Beraz, horretarako autoantolakuntza beharrezkoa da; guk geuk geure buruak antolatuz gure behar eta desiren arabera eta ez beste inoren beharren arabera. Ongi antolaturiko herriak lor ditzake borrokatzen dituen helburuak.

Libreki antolatzeak eta erabakitzeak, libreki kudeatzea eskatzen du. Hau da gazte borrokaren ikur nagusienetakoa bat, autogestioa hain zuzen. **Autogestioa ez da hala ere oraina kudeatzeko gaitasun kontzientea soilik, baizik eta etorkizunean izan daitezkeen arrisku eta mehatxuak aurreikustea eta hauetara prestatzea.** Aurreikuspen gaitasun hori gabe edozein autogestio proiektuk ez du luzaroan iraungo. Hau da, autogestioak **epe ertainean** erabakitzeko gaitasuna behar du.

Aipatzen ari garen arriskuak ugariak izan daitezke, baina ezagunenak estatuen erasoak eta talde mailako arazoak izan ohi dira. Badira gehiago noski, asimilazio politiko-kulturala, kompetentziaren legeak... baina lehen biak dira epe ertainean

gehien eragiten digutenak. **Estatuaz eta taldeko botere harremanetaz babeste-ko planteamenduak beharrezkoak ditugu** beraz. Hau hasieratik kontuan ez duten proiektuek lehenago edo beranduago porrot egingo dute, ezinbestean.

NAZIO ERAIKUNTZAREN LAN ARDATZAK

Gauzak horrela, gazte ikuspegitik nazio eraikuntza estrategian sakondurik, hainbat korapilo askatu nahi izan ditugu:

Lehenik eta behin, argi izan behar dugu NE-k lan estrategiko eta taktiko bati egiten diola ekarpena. Hau da, ikuspegi estratergikoz aritu behar gara baina baita borroka taktikoak gauzatu. Lehen aipamen hau agerikoa bada ere, berebiziko garrantzia du.

Hiru lan ardatz nagusiri heldu behar diogu Nazio Eraikuntza estrategia era integratzen garatu nahi badugu eta esan bezala ikuspegi estratergiko eta eskaintza taktikoari heldu nahi badiogu.

a) Bizi Baldintzak (BB):

Eraldaketa soziala helburu, **pairatzen ditugun baldintza materialak salatu eta hauen erantzuleak markatu behar ditugu**. Bizi baldintzen lan lerroan borroka sektorialak kokatzen ditugu eta taktiko bezala identifikatu, gure helburua ez delako soilik bizi baldintzak hobetzea, errealitatea iraultzea baino. Horregatik, zeharka egiten dute ekarpena, gazteak batu eta borroka piztu nahiz errealitate soziala eraldatzeko baliagarriak diren borroka direlako.

Egun bizi dugun erasoaldi neoliberalaren aurrean, urteetako borroka sozialak lortutako garaipenak balio gabe gelditzeko estrategia baten barruan kokatzen gara. Erasoaldi honi erantzuteko planoari heldu behar diogu beraz, kontraktasuna artikulatuz eta borroka espazio zabalak irekiz.

Hortaz, **helburua proiektuen arteko talka eragin eta borroka espazio zabalak eratzeari izango da, eredu politiko eta sozialen arteko konfrontazioa areagotuz** (eta ez proiektuen talka irudikatu, esaten ari garen bezala). Gazteon bizi baldintzak hobetzearen ekinbide honekin proiektuen arteko talkan sakontzea dugu helburu eta beraz, askotan ezarritako helburua lortu baino, egiten dugun bidea izango da garrantzitsuagoa.

b) Bizi Eredu Askatzaileak (BEA):

Hitzetatik ekintzetara pasatzeko praktika bezala definitzen dugu hauek. Lan estratergikoa dela diogu gure proiektua egunez egun diskurtsoz eta praktikaz elikatzen duten eremuak direlako. Sexualitatea, kontsumo erak, harremanak, drogak, aisialdia... **eremu orotan ditugun balore eta desirak eraldatu eta bizi eredu askatzaileak sortzeaz ari gara**. Oinarri objektibo eta materialetatik eratorritako balio subjektiboak norberaren jardunez eraldatzeko praktika eremuaz ari gara.

Hau da, "iraultza gure baitan hasten da!" lelo famatua martxan jartzeko ekinbidea litzateke. Inoren zain egon gabe, gu geu eraldatzeko prozesuan sakontzeko bitarteko teoriko eta praktikoak eskaintzea, egunerokoa zalantza jarri eta beste era batean bizitzera ausartzeko tresnak alegia.

Gure praktika pertsonal hutsetik garatu dezakegula ere gainditu behar dugu. **Pertsonal eta kolektiboetatik hasi beharko da bizi eredu askatzaileen eraikuntza benetan eraginkorra izateko.** Subjektu ahaldunduak eraiki nahi ditugu, horretarako, **ezinbestekoa da gure artean ematen diren botere harreman asimetrikoak gainditzea eta gure barne zein kanpoko praktikei arreta jarri behar diegu, pertsonal zein kolektiboak.**

Baina kontuz. Hau ez da koherentziaren gaineko eztabaida bat. Ez da nor den pertsona hobea, nor ideia batzuekiko fidelagoa. **Ze proiektu zor ditzakegun da gakoa, eta bide horretan norberaren konpromiso pertsonalak noraino zabaltzeko prest gauden.** Gure bizitzak borroka esparru bezala ulertuko ditugun edo ez. Modu batean aitzakien kontrako praktika bat izan behar du.

d) Bizi Eredu Berrien Eraikuntza (BEBE):

Alternatibak eraikitzeko lan lerroari deituko genioke horrela. Hau ere, lan estrategiko gisa definituko genuke, helburua alternatiba hauen eraikuntza izango delako. Hau da, proiektuen arteko talka horretan, lehia politikoa ez da konfrontazioan oinarrituko eta aldarrikapen hutsetan geratuko. Proiektuak aurrera atera eta aldarrikatzen dugun eredu praktikan jartzeko lan lerro gisa zehaztuko genuke.

Aldarrikapenetatik alternatibetara salto egiteko prozesua **ahalduntzean oinarritu behar da, benetan sinetsi beharko dugu posible dugula lortzea eta prest gaudela mugak gainditzeko: izan juridiko, administratibo, sozialak...** Horrek desobedieneztiarako hautu zehatza egitea suposatzen du. Ezarritako parametroen arabera ez dugu lortuko, soilik gure parametro propioak sortuta egingo dugu aurrera. Geure joko zelaia definituko dugu horrela, eta gure logiken arabera funtzionatu, gure erritmo, lege eta moduekin.

Azken finean gure proiektu politikoaren ezaugarritzeaz ari gara, sistemaren barruan alternatiba gisa irudikatu ditzakegunak eta baita sistematik kanpo elikatu daitezkeenak. Garrantzia duena Herri alternatiba bat garatzea da. Horregatik, norberak hartu dezakeen bidean, kolektibo txikiek egin dezaketen ekarpena baliatu eta eredu gisa kokatzen badugu ere, **bizi eredu berrien eraikuntzaz ari garenean herrigintzatik estatugintzarako saltoaren beharra ere azpimarratzen dugu.**

Hiru lan lerro hauen uztarketak eta elkarrekintzak ekarriko du NE estrategian urratsak ematea. Ondo ulertu behar dugu ez direla ildoak, eta ez ditugula ildo bezala landuko. **Gure helburua NE-k izan beharreko ikuspegia definitzea da, borrorak ezaugarritzen dituzten elementuak era integralean jasotzea,** eta nola ez hiru hauetako bat kontenplazten ez dugunean gure ekinbidea kamusten ari garela agerian uzteko bitartekoak teorizatzea.

Beraz borroka bat garatzerako orduan, hiru ardatz hauek nola elikatuko ditugun hausnartu eta plangintzatu behar dugu. Ekinbide batzuk desoreka bizi-baldintzak lortzean kokatuko dute, beste batzuk bizi eredu askatzaileak sortzean, baina denek egingo dute ekarpena guztietan maila desberdinetan bada ere. Esparru bakoi-tza kontenplatzea da beraz garrantzitsuena, bere muga eta funtzioekin identifika-tzen jakitea, estrategia integral bat garatu ahal izateko.

Horregatik, ze borroka edota ikuspegi garatzen dugun baino, nondik abiatzen du-gun izango da garrantzitsua. Hiruren arteko elkarrekintza ulerturik, herri eta es-kualdeetan pizten ditugun borrokek zein eremutik abiatu nahi dugun eta hortaz zein helburu egozten diegun izango da benetan garrantzia duena.

ERAIKUNTZA MIKROPOLITIKOA

Mikropolitika eta makropolitika terminoen arteko desberdintasunak ez du “politika txiki eta handiaren” arteko desberdintasuna adierazi nahi. Ez da bat estatuari da-gokiona eta bestea bikote harremanei dagokiena (ez behintzat bakarrik). Berez, politikaren logika orokorraz edo ariko ginateke.

Esparru makropolitikoa gu eta gure etsaiaren artean sortzen den espazioari deri-tzogu. Espazio horretan sortzen den praktika politiko orok etsaiaren marka dara-



ma, etsaiari zuzenduta dago, eta azken batean, bere arabera da. Esparru honetan Ezker Abertzaleak tresna politiko historikoak garatu eta berabatu sakondu izan du, gaur egun arte heldu zaizkigunak.

Mugimendu politiko batek bere etsaiaren beharrezkotasuna galtzen duenean eskuratzen du heldutasuna. Guk etsaia beharrezko izan dugu gure praktikatuko. Izan ere, errepresioak, hainbeste mintu gaituen pizti horrek, gure barneko sua elikatu, gure gorrotoaren motorrak berotu eta gure talde izaera gorpuzten zuen. Gure etsaiaren erasoek (gure lurrari, gure herriari) praktika politikoak goitik behera baldintzatzen zigten. **Etsaiarekiko dependentzia handia garatu dugu, eta horrek errealitate berriak sortzeko ezintasuna ekarri digu.**

Hori dela eta, **etsaiaren printzipioa alde batera utzi behar dugu, eta etsaia kanpo faktore bihurtu. Motore berri bat behar dugu. Printzipio politiko berria errealitate izan behar da.** Alegia, 'etsaiari aurre egin' formula gure praktika politikoaren bigarren planoan jarri eta lehen planoan errealitatea eraiki behar dugu.

Sistema ez da soilik giza talde dominantea: sistema errealitate osoa da. **Errealitatearen botere esturturetan mugitzen den praktika politikoari mikropolitika deritzogu.**

Espazio makropolitikoak etsaiarekiko dependentzia garatzen zuen eta etsaiari aurre egitera norabidetzen zituen indarrak. Espazio mikropolitikoak errealitatearen esparruan borrokatzen eta botereak eraikitzen norabidetzen ditu indarrak. Bi espazioen uztarketa eman behar da: batetik, praktika mikropolitikoak ofentsiba politikoaren funtzioa beteko du, eta bestetik, praktika makropolitikoak defentsiba politikoak.

Beraz, **mikropolitika, norberaren arabera parte hartze politikoa dela esan dezakegu. Komunitate bakoitzak, bere behar eta nahien arabera eraikitzen duen errealitate politiko berria hain zuzen.** Maila oso desberdinetan beraz, erabiliko ditugu estrategia mikropolitikoak. Taldeen mikropolitikak, desiren mikropolitikak, militantziaren mikropolitikak... boterearen kudeaketa eta eraikuntza espazioen arabera biderkatuko da.

ESTATUGINTZA

Egungo fase politikoa prozesu eratzailer gisa irudikatzen dugu. Nora garamatza honek? Bada, lehen bai lehen estatu egitura berriak eraiki beharko ditugula, estatugintzari bide ematea alegia.

Gazteoi orokorrean, estatugintzaz hitz egitea arrotza egiten zaigu, are gehiago Estatugintza eta Herri Boterea esaldi berdinean erabiltzeak. Argi eduki behar dugu ordea, Estatu eredu berri bat behar dugulako, estatugintzak nazio eraikuntzaren baitan hartzen duela zentzua. Esan dezakegu, berdina ez den arren, estatugintza eta herrigintza eskutik doazen prozesuak direla, beraz.

Hau da, herri boterea artikulatzen dugun heinean, eta geroz eta tresna gehiago eskaintzen dizkiogun bitartean, estatugintzan aurrera urratsak ematen ari garela, noski gobernabilitate eredu berri bat izango duen estatugintzari. Herrigintza ildo estrategikoetatik ere garatu beharra beraz, aisialdiko eremuez gain.

BIZITZAK, SUBJEKTIBITATEAK ETA BOTERE HARREMANAK

Gure bizi-ereduak, kapitalismo zein patriarkatuaren baitako bizi ereduak dira. Argi dago hori, ezin da bestelakorik izan bestelako eredu sozialik ez dagoen bitartean. Eta argi dago, kapitalismo-patriarkarren baitako bizi ereduak ere ezin dutela sistema hau aldatu... sistemaren ondorio dira eta.

Horrek, noski, bere horretan subjektibitate kapitalista-patriarkarra dakar. Sutilago edo muturrekoagoa izan daitekeen arren. Errealitate sozial berriak sortu behar ditugu, subjektibitate berriak sortzeko. Kapitalismo patriarkarretik kanpoko errealitateak sortzeari ekin behar diogu beraz. Adibidez: militantzia errealitate sozial berri eta eraldatzaile baten sorrera da. Testuinguru horretan ematen diren harremanak ere, bestelako eredu sozialen araberakoak dira (ez gara berdin portatzen, sozializatzen esparru militanteetan eta gainontzekoetan...). Noski! Horrek ez du esan nahi botere harreman asimetrikorik (edo are antagonikorik) ez dagoela militantzian. Noski baietz, botere harremanen katebegiak garela oroitu gero.

Noiz apurtzen da orduan katea? Ez da nahikoa esparru partzialak sortzearekin. Eraikuntza soilik kontsumoan, soilik musikan, soilik harreman afektibo-sexualetan... garatzen bada ez du guztiz subjektibitate berri baten sorrera ekarriko. Militantziak ekartzen ez duen bezala. Hau izan da, urte askotan mugimendu iraultzaileon akatsetakoa bat: pentsatzea bai militantziak edo baita ekoizpen eredu alternatibo eta herritarrek bere horretan "gizon berria" eraikiko zutela. Noski, beharrezkoak ditugula bizitzaren esparru makropolitiko horiek berreraikitzea, baina ez da nahikoa gure burujabetzarako behar ditugun aldaketa orotarako. **Gizon berririk ez dugu nahi, zernahi berriak baizik!**

Bizi Eredu Berrien Eraikuntzak, beraz, Nazio Eraikuntza bizitzako eremu guztietan pentsatzea suposatzen du. Eremu orotan eraikitzea bestelako errealitate sozialak, burujabetza oinarri hartuta bizitzen hastea, ahalik eta errealitate politiko berri gehien sortuaz. Politikaren alde positiboaz ari gara hemen: eraikuntzaz hain zuzen.

Joseba Sarrionandiaren hitzetan: "Politika esan, eta gobernuan pentsatzen dugu, edota alderdian. Alderdia gobernu txiki bat bezala antolatzen da, noizbait dena gobernatzeko intentzioa duen heinean. (...) Politika, bizi beharrean sufritzen denez, gizartea ere, komunitate moduan bizi beharrean sufritu egiten da, hein handian (...) azken batean politika bahitua dagoelako.

Politika beste zentzuan, galdera forman definitu dugu. **Politika da denon gizartea denon onerako antolatzeko ahalegin kolektiboa, denona eta bakoitzarena, eguneroko bizimoduan.**

Eta ikuspegi horretarako politika egiteko ez dago zertan autoritateei begira egon. Ez da hauteskundeetan edo mobilizazioetan parte hartzea politika egiteko modu bakarra. Emandako egituretan “parte hartzeaz” eta “erabakimenaz” hitz egiten da, baina, **politikaren beste zentzu honetan, “erabakitzea” baino inportanteagoa da egitura berriak “eraikitzea”.**

Politika ez da parlamentu edo gobernu urrunean produzitzen dena, baizik eta batez ere, pertsona bakoitzak egiten duena ezarria zaizkion baldintzetan. Politika eguneroko bizimodua da batez ere, atentzios eta pentsamendu kritikoz bizitzea. Etxean edo kalean, lanean edo aisian, herrian edo atzerrian, dena aktiba daiteke politikoki. Bertsolaritza politikoa da, eta zinema egitea ere politika egitea da, etxe bat erostea politikoa da, eta lanera oinez joatea ere bai. Politikaren bahitzaileek sinestarazi digutenaren kontra dena da politikoa.

(..) Ez dakit politikaz esan nahi izan dudan ondo ulertu didazuen. **Politika alderdien arteko errepresentaziotzat hartu beharrean, gure errealitate eta desirei deitu beharko geniekeela, egiten dugunari eta egin dezakegunari.**

Politika ez dago hodeiertzean, gobernuak eta parlamentuak bezala, baizik eta gutako bakoitzak zapaltzen dugun momentuaren fisikan eta metafisikan.”

ANTOLAKUNDEAREN APUSTUAK

Ziurrenik, mikropolitikaz eta logika horizontalez hitz egiteak kontraesan edo gutxienez frikzioak eragingo ditu antolakunde bertikal batean, zeinetan zuzendaritza bat dagoen eta bistan diren abangoardismo eta endogamiak ematen diren.

Baina analisiarekin bat baldin bagatoz eta prozesu eratzaille bat aurrera eramango badugu, beharrezkoa izango da antolakundea berregokitzea. Baina zein norabide-tan? Ez dugu uste Gazte Antolakundea horizontal bilakatzeko apustua egin behar denik. Beharrezkoa dugu konpromiso maila ezberdineko, baina ongi antolatutako Gazte Antolakunde nazional indartsu bat egotea. **Nazio osoan eragiteko eta agenda politikoan eragiteko batetik, eta gazte belaunaldien arteko eztabaiden loturak askapen prozesuan norabidetzeko, bestetik** (4-5 urteko gazte militantzia zikloei 10-12 urteko eztabaidak presente edukitzeko alegia).

Baina ezinbestekoa izango da, hemendik aurrera, antolakundea eta gazte mugimendua, herrigintzatik eraikitzen hastea eta aipaturiko demokraziaren eraikuntzan tresnak eskaintzea. Zein tresnak dira, ordea, eskaini beharrekoak alternatiben ildo hori garatzeko?

Bi alternatiba eredu topatzen ditugu, askogutxi. Soziokulturaltik etorriko lirakeen alternatibak eta alternatiba sozioekonomikoak. Lehen ildoan, autogestioaren bidez aisialdi eredu alternatiboak garatu izan ditugu: eskaintza kultural zabal eta doakoa, gaztetxe eta era orotako espazio autoegestionatuetatik. Orain arteko euskalgintza eta feminismoaren lanketa ere alternatiba soziokulturalen barruan kokatu genezake. Ondorioz, gaztetxeak berak, mota honetako dinamikak edukitzean nagusi (tai-

ler, hitzaldi eta kontzertuak) alternatiba soziokulturalen barruan koka genitzake.

Aurretik ikusitako ildotik, alternatiba sozioekonomikoetan sakondu beharra ikusten dugu, eta norabide horretan Ernaik ikuspegi hau duten proiektuak bultzatu eta saretzea, azken finean herrigintzak eremu sozial berriak bere egiteaz ari gara, berjabetza prozesu oso batez. Gaztetxean egiten genuena baina, ekoizpenean, kontsumoan, distribuzioan, zaintza lanetan... Boterearen eraikuntza eta herrigintzaren logikatik abiatutako proiektuak bultzatu behar ditugu: Ekonomia Sozial Eraldatzailea, Autonomia Komunala, Okupazioak, Elikadura Burujabetza, Zaintza Lan komunitarioak...

Garai batean baliteke, gisa honetako praktikak letra larriz izkiriartzen zen BORROKARI ekarpen gisa irudikatzen genituela. Baina irudikapen horrek (eta ekarpen hitza erabiltzeak berak), eremu hauek ez-borroka bezala ikusten genituen: komertzio txikiak, baserriak, gaztetxeak, zaintza lanak, kulturgintza, industria, herri demokrazia, auzolana... **Orain eremu hauetan garaipenak bilatu behar ditugu, ulertuta hauek direla fase politiko honen borrokak. Gureak dira garaipenak!**

4.

**GAZTE
MILITANTZIAREN
OINARRIAK**

TXINAURRI LANA

“Gazte mugimendua dagoen lekuan dinamizatu, eta ez dagoen lekuan: sortu”

Jarriaren V. kongresuko esaldi honek argi eta garbi sintetizatzen du gaur egun ere gazte antolakundearen zeregin nagusienetako bat. Esaldi hura 90. hamarkadaren bigarren erditik aurrera ehunka gazteren praktikaren erdigune bilakatu zen. Gazte mugimenduaren dinamizazioa elementu estrategikoa da Euskal Herriaren etorkizunerako. Iraultza nazional eta soziala egiten saiatzen ari bagara, jendea antolatu beharra dago. Gazte Antolakundearen funtzioa gazteria antolatzea izan behar da. Hori egiteko modurik hoberena, mugimendu zabalean aukera ezberdinak eskaintzea da, euren errealitatearen, ezinegonen, beharren, nahien eta aukeren arabera jendeak antolatzeko aukera izan dezan.

Gazte mugimendua dinamizatzea ordea ez da dirigismoa. Hitzak berak dioen bezala, dinamismoa ematea da, akuilu lana egitea hain zuzen. Gazteriarekin lan egin, gazte eragileetan era aktiboan parte hartuz, Ernaitik haratago gazteriaren problematikak jorratuz. Honela, ideologia, konpromiso edo interes ezberdinak dituzten gazteekin lan egitean, batetik gu geu aberasten gara ikuspuntu eta kritika ezberdinak jasoaz; eta bestetik gure proiektu politikoa bera indartzen dugu. Izan ere ez dugu zertan %100ean bat egin beste norbaitekin berarekin proiektu edo borroka bat abiarazteko. Hala balitz, gurean ere komeriak izango genituzke eta. Horregatik, gazte mugimenduan parte aktibo izatean, adostasunetik abiatu behar gara. Hau da, **batzen gaituen horretan indarra eginez**. Modu honetan, **borrokak zabaldu eta biderkatuko ditugu**: 1. kontraesan sozialak biderkatzeko, 2. gazte antolakuntza indartzeko eta 3. gazte boterea artikulatzeko.

Gazte mugimendua bere horretan, helburu eta lehentasun osoa izan behar da Ernairentzat. Baina gure parte hartzearekin bestelako helburuak beteko ditugu ere. **ENAMeko kideon erreferentzialtasuna irabazten** gure proiektu politikoa zabaltea lortu behar dugu bide horretatik. Ez gazte eragileek gure aldarrikapenak bere eginez, baizik eta bertan parte hartzen duten gazteak gure posizio politikoetara hurbiltzen. **Gazte mugimenduan egiten dugun lana eredu bihurtzen bada, Ezker Abertzalea eta gure proiektua eredu bihurtzea ere lortuko dugu.** Eta hau lan txikienetik hasten da, gazte langabe edo migranteekin, etxe kaleratzeekin edo jai herrikoiekin. Ernaiko kideok erreferentzia umila irabaztea lortzen badugu, zilegitasun politikoa irabaziko dugu. **Zintzasunez eta umiltasunez egindako lan politikoak definitu behar baitu gure eredu politiko eta organizatiboak.**

Azkenik, proiektu politikoa zuzenean elikatzeko beharra ere dinamizaziotik eratorriko da. Gure parte hartzearen bitartez ekidin behar ditugu gazte mugimenduetan eman daitezkeen postura oportunistak edo frentistak (Ezker Abertzalearen inguruan, adibidez). Noski, ez ortodoxia ezta dogmatismotik ere. Marra gorriak eduki behar ditugu eta minimoen baitan antolatu gazte mugimenduan eta gazte mugimendua. Ikuspegi estrategikoa eskaini behar diogu horrela gazte mugimenduari, **gure proiektu politikoa elikatzen** saiatu behar garelarik.


Aipatu dugu jada, baina garrantzitsua da ere **dinamizazioa zer ez den azpimarratzea**. Aurreko logika orokorretatik at dagoen oro jada ez da dinamizazioa eta kasurik okerreanean dirigismoa besterik ez da. Gazte mugimendua lehenetsun hartu gabe, Ernairen beharren arabera parte hartzen badugu gazte mugimenduko gainontzeko eragileetan, itotzen amaituko dugu mugimendua bera. Izan ere, ezinbestekoa da **gazte mugimendua lehenetsun moduan hartzea eta bere erritmo eta eztabaidak errespetatzea**, hori baita finean, **gazte mugimendua ahalduntzea**. Gutxi balitz gazte mugimendua itotzea proiektu politikoarekiko atxikimendu eza ekar dezake ere gure praktika okerrak. Ernaiko kideok "gazte mugimenduarengan delegatzen badugu" (gu bertako parte izango ez bagina bezala!!) protagonista izan gabe, borrokatu ez baina agintzeko prest gauden militanteen itxura emango dugu (horrela garelako noski!).

Eta hori ez da posible. **Ezker Abertzaleko kide oro herriarengatik lan eta arriskatzeko prest egon behar dugu, eredu militante bihurtuz, eta ez posizio komodo eta dirigistetatik**. Eskuak zikindu behar ditugu gazte mugimenduan, eta ez sasijakintsu papera bete. Gazte mugimenduan lan konstantearen bidez eredu bilakatu behar dugu, protagonista izan baina protagonismorik gabe. Ardura zailenak hartzen beti lehenak izaten, lan gehien egiten, parte hartze aktiboena izaten... **bileretara soilik ideia superonak botatzen dituzten militanteak (baina ezer egiten ez dutenak) ez dira militanteak, mandarinak baizik**.

Gauzak horrela, Gazte mugimenduaren dinamizaziorako tresna eta bitarteko ugari sortu izan ditu gazte borrokek azken hamarkadetan. Ernaiko kide oro gainontzeko gazte mugimenduan eragin eta ikuspegi estrategiko kontziente bat eskaintzeko ardura daukagun heinean, dinamizazioari forma ematen ikasi beharko dugu. Aurretik aipaturiko ezaugarrien multzoari desdoblamentua deitu ohi izan zaio, guk txinaurri lana kontsideratzen duguna, hain zuzen. Era grafiko batean aurreko hainbat ezaugarri azpimarratuko ditugu:

Zer da dinamizazioa / Txinaurri lana	Zer ez da dinamizazioa
<ul style="list-style-type: none"> -Parte hartze kontziente eta estrategikoa. -Lan umil, konstante eta nekaezina. -Konbentzimendutik egiten den txinaurri lana. -Eredua eman nahi duena. -Aldez aurretik Ernaiko taldean eztabaidatuta GM gainean. -Erreferentzialtasuna sortzea du helburu. -GM ahalduntzea bilatzea. -GMren ezaugarri eta helburuetatik abiatu behar da, ongi bereiziz antolakundearen eta mugimenduaren (helburuak, beharrak...). -GMren Estrategiaren gako orokorrak diseinatzen saiatu. -Epe oso luzeko perspektiban kokatu behar da (mugimendua sortu, kontzientziatu...). 	<ul style="list-style-type: none"> -Inertziako edo beste edozeinen parte hartze kualitatibo berdina izatea. -Agintetik egiten den eragitea. -Aldez aurretik Ernaiko taldean erabakiak hartuta. -Guk nahi duguna betetzea helburu edukitzea. -GMren erritmo eta eztabaida propioak ez errespetatzea (pentsatuz guk emandako eztabidak kualitatiboagoak izatean egokiagoak direlako). -GMren errealitate propioa aintzat hartzen eta enairen gabeziak betetzeko erabiltzea. -GMren plangintza zehatza diseinatu. -Epe laburrean kokatzea (gure beharren/hutsuneen araberrako planteamenduekin). -Dirigismoa.

ZAINZA HIRUKOITZA



Zaintza hirukoitzak militantzian eta oro har taldeetan ematen den tentsioen berri eman nahi dugu. Askotan taldeetan biltzen garenean proiektuaren mesedetara beti talde giroa zapuztu egiten dugu presa edo tentsioengatik aitzaki. Beste batzuetan, taldeko presioek norbanakoan dute eragina, pertsonak txikitzeko gune bihurtu daitekeelarik militantzia. Zaintzaz arduratzen garenean ordea, elkartu gaituen proiektua albo batera uzteko joera egon daiteke.

Zaintza hirukoitzaren kontzeptuak hiruen arteko tentsioa onartu eta mantentzea eskatzen dugu. Oreak hirukoitz hau mantentzea beraz, ezinbestekoa izango da gure proiektu politikoa aurrera eramateko. Talderik gabe proiekturik ez dagoelako. Norbanakorik gabe talderik ez dagoelako.

Militantzia ereduari dagokionez ere horrelako hiruki bat ematen delakoan gaude. Proiektuari loturiko balio eta ezaugarriak (iraultzailea, solidarioa, feminista...), taldeari loturikoak (diziplina, konpromisoa, konstantzia, zaintza...) norbanakoari dagozkionak (koherentea, langilea, umila, integrala...).

Hiruki honetan mugitzea da erronka, eta bertatik hausnartzea egungo militantzia ereduaren indargune eta ahulguneak, eta noski, honi buelta eman eta berriak asmatzeko planteamenduak.

